



ARGIA



GAROÑA

NUKLEARREN BIZITZA
LUZATZEKO AMARRUA

- » LARRUN: GIZONEZKOEN SASKIBALOIA ETA FUTBOLA, PROFESIONALAK DIRU-LAGUNTZETAN
- » VIETNAM: GERRAK LORTU EZ ZUENA MONSANTOK ETA COCA-COLAK LORTU DUTE
- » HILETAK: NOLA NAHI ZENUKE INGURUKOEK AGURTZEA?





euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

noiz:

azaroak 10 osteguna

non:

San Telmo Museoa
(Donostia)

ordua:

09:00-14:00

***oharra:**

plaza kopurua
kontrolatu ahal izateko,
beharrezkoa da izena
ematea.

EGITARAUA

09:00: Aurkezpena

09:15: Hitzaldia: Euskal Herriko egitasmo komunikatibo mugiarazleak

- **Aitziber Gurutzeaga** (Egia Euskaraz)
- **Kattalin Miner** (Mugimendu Feminista)
- **Peru Aranburu** (Errigora egitasmoa)

10:00: Hitzaldia: Argia, kazetaritza independentetik komunikazio proiektu burujabera
Iraitz Agirre eta Lander Arbelaiz

10:30: Hitzaldia: How Iceland "crowd sourced" its constitution in the aftermath of its financial crisis
Katrin Oddsdottir (Islandia)

11:00: Atsedendia

11:30: Hitzaldia: ¿Un mundo sin traducción?
Scheherezade Surià, itzultzailea (Katalunia)

12:00: Hitzaldia: 'Merci Patron' y otros proyectos audiovisuales para el cambio social
Aritz Cirbián (Compacto Coop.)

12:30: Hitzaldia: La revolución de las sonrisas: la sociedad civil catalana y el nuevo activismo político
Galdric Peñarroja, argazkilaria (Katalunia)

Komunikazio emozionala:
tresna eta jokabide komunikatiboak
gizartea mugiarazten

Antolatzaileak



info+:
www.euskarabildua.eus

Babesleak



Laguntzaileak



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Imanol Alvarez
- 19 Jakes Bortairu
Oihana Etxebarrieta



Erritu katolikoa da hildakoei azken agurra egiteko biderik hautatuena, baina gero eta ugariagoak dira beste hileta mota batzuk. (ARGAZKIA: IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEN EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTA:
ONA CARBONELL
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Gurutzne Etxeberria, euskara irakaslea: "Mexikon oso esker oneko jendea izan dut inguruan beti" / Miel A. Elustondo
- 20 | Garoña: Hemen ari da jokatzeko espainiar nuklearen etorkizuna / Unai Brea
- 26 | Heriotza: Errituak ugari azken agurrean / Itziar Ugarte Irizar
- 30 | Etxerik gabeko milaka langileren borroka erradikala Sao Paulon: etxebizitzaren okupazioa / Lander Arbelaiz
- 32 | Haur euskaldunak eta bearnesak ikastetxe berean / Mikel Asurmendi
- 34 | Argazki galeria: Artxandako jolas parkeari agur betiko / Sergio Monedero (Suhigarai)
- 42 | 'Francoren bilobari gutuna': Herri baten zauriak oholatzara / Lander Arretxea Bereziartua
- 44 | Sara Hebe: "Iraultzen bidelagun izatea dagokigu musikariori" / Iraitz Agirre Aranguren
- 47 | Mahai-ingurua: Emakumeak euskal ikus-entzunezkoetan / Ale Goikoetxea

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizaguirre.

Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

PANORAMA

Bertsio ofizialaren ifrentzua

Fusilamenduak, elektrodoak eta poltsa, hobi komunak, jazarpena, drogak, umiliazioak, gerra zikina, hizkuntza inposaketa, inpunitatea... Guardia Zibilaren lorratza iluna da Euskal Herrian. Talde militarren eragina gertutik ezagutzen dute Nafarroako Sakanan. Jai giroan Altsasuko taberna batean izandako liskar bati Espainiako erregimenaren indarrek emandako dimentsio politikoa –Guardia Zibilak zabalduetako bertsio faltsua, tarteko– azken tanta izan da. Horren harira sortu den zirku mediatikoa eta kriminalizazio saiakera salatzen milaka lagun kalera atera ziren larunbatean.

Argazkia: Irantzu Pastor





MUNTAI POLIZIA
TZI PAKEAN ALTS

23 OK



“Irregularitasunek jarraitzen dute Belartzan eta Donostiako Udala da konplize”

Mikel Esnaola, Naturkon



“CIE [Atzeritarrentzako Internamendu Zentro] guztiak itxi behar dira, giza eskubide oinarrikoenak urratzen dituztelako eta pertsonak ilegalki pilatzen direlako”

Juan Arteaga, @dhzan



“Patriarkatuarena da nahi dugun heriotza bakarra”

Hego Amerikan indarkeria matxistaren aurka egindako mobilizazio jendetsuetan aldarrikatua.



“Hedabideen jabetza eta ofizioaren prekarietatea aztertuta, zaila da bestelako jendarte bat eraikitzeak eskatzea kazetariari #digitaro2016”

Libe Mimenza, @libemimenza



NOAUA

Usurbil eta Zubietan ezezkoa eman diote erraustegiari

Noaia
@noaia

“Ezezko borobila eman dio herri honek erraustegiari”, Erraustegia Erabakia Herri Plataformako kideek, asteburuan zehar egin den galdeketa emaitzak frontoian aurkeztekoan adierazi dutenez. Bozka eman duten usurbildar eta zubietarren %97,9ak ezezkoa eman dio erraustegiari.

Hona datuak, zehazki: 5.312 biztanleko errolan, %43,6koa izan da parte-hartze orokorra (2.317 lagunek eman dute botoa). Zubietan, %64,7raino iritsi da bozkatzea joan direnen kopurua. Guztira, 2.269 boto jaso dituzte erraustegiaren kontra (%97,9), 39 alde (%1,7), 8 boto zuri eta 2 nulo.

Boluntarioz osatutako mahaietan eman dute botoa Usurbil eta Zubietako

bizilagunek. Berme batzorde bat ere izan dute, herritarrez osatua, galdeketa prozesu osoa ikuskatzea eta protokoloak ezartzen duenaren arabera betetzen dela ziurtatzeko. Galdera argia erantzun dute herritarrek: “Erraustegia egitea nahi duzu ala ez?”.

Hitzordua eskatu diote Markel Olanori

Foru Aldundiko ahalzun nagusi Markel Olanorekin biltzeko hitzordua eskatuko dutela iragarri du, emaitzekin pozarren agertu den herri plataformak. Are gehiago, asteburuko galdeketa ospatzeko izan diren debeku eta zailtasunak kontuan izanda. Horiek ere oroitarazi nahi izan ditu Erraustegia Erabakiak, emaitzak frontoian aurkeztekoan. Herritarrak zoriondu eta galdeketa ahalbidetu duten laguntzaile guztien lana eskertzearekin batera.

“Bioteknologiak hobeturiko supergizakien eta balio gutxiko herritarren artean bananduko da mundua”

YUVAL NOAH HARARI, PENTSALARIA


Harariren ustez, “desoreka ekonomikoak desoreka biologiko bihurtuko ditu bioteknologiak. Aberatsak azkarragoak, sortzaileagoak izango dira, euren burmuin eta gorputzak diseinatu ahalko dituztelako abildade berriak lortzeko. Hala, gaitasun handiak dituen elitea egongo da batetik, eta maila gutxiagoko kasta biologikoa bestetik: mundua ez da aberats eta pobreen artean bananduko, bioteknologiak hobetutako supergizakien eta balio gutxiko herritarren artean baizik”. **LA VOZ DE GALICIA (2016/10/15)**



EAJK 28 PARLAMENTARI

irailaren 25ean

A ze
EGONKOR
TASUNA!




EDOZEIN
KOALIZIO
EGINGAI:

PPrekin,
PSOErekin
...

EAJK 27 PARLAMENTARI

irailaren 29an


Gobernu
KOALIZIOA
BAZTERTU



ETA
AKORDIO
PUNTUALAK
SINATU:

PPrekin,
PSOErekin,
PODEMOSekin
...

CK



Irudian, langileak Galdakaoko ospitaleko laborategi batean. EAEko Auzitegi Nagusiak BIOEF fundazioko ikerlari baten salaketa aintzat hartu du.

Behin-behineko langileen kaleratzea ez da merkeagoa izango

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

EAEko Auzitegi Nagusiak bat egin du Europako justiziak emandako irizpideekin, eta atea ireki du kaleratutako behin-behineko langileek ere 20 eguneko kalte-ordaina jaso dezaten.

Galdakaoko ospitalean hiru urtez ikertzaile aritu zen emakume baten kasuan EAEko Auzitegi Gorenak ebatzi du 20 eguneko kalte-ordaina dagokiola lan egin zuen urte bakoitzeko. Hala, Europako Justizia Auzitegiak irailaren 14an agindutakoarekin bat egin du eta langile finkoekin alderatuta behin-behinekoek jasaten zuten diskriminazioa -12 euro baino ez zuten kobratzen- amaitzeko bidea ireki du.

ELAk ohar bidez azaldu du epaimahaiak "langile-klasearentzako aukerarik onena" hartu duela. Sindikatuak eraman du BIOEF fundazioko langile honen kasua eta nabarmendu du sententziak ez duela bereizketarik egiten behin-behineko kontratu motaren artean, bitartekoa izan edo lan jakin baterako izan.

Garbiñe Biurrun: "12 euroko kalte-ordaineko kontratua amaitu da"

Euskadi Irratian Garbiñe Biurrun erabakia hartu duen epaimahaiko presidentek hitz egin du. Magistratuak ziurtatu du orain arte kalte-ordainik jasotzen ez zuten bitarteko langileek ere erreklamazioak egin ahal izango dituztela.

Garbiñe Biurrunek azaldu duenez, salaketa eta eskaera ugari etor daitezke hemendik aurrera eta beraiek epai berdina emango dute kasu guztietan: "Gure ustez 12 euroko kalte-ordaineko kontratu hori amaitu egin da". Baina epailearen aburuz ez da baztertu behar beste auzitegi batzuetan Estrasburgoko agindua bestela interpretatzeko aukera.

EAEko Auzitegi Nagusiaren ebazpen honi helegitea jarri diezaioke Auzitegi Gorenean eta Gorenak urtebeteren buruan erabakiko luke. Nolanahi ere, magistratuak gogoratu duenez, bitarte horretan ebazpena bete egin beharko dute enpresek eta ezin izango dituzte langileen kaleratze merkeagoak egin.

EKONOMIAREN TALAIAN

Ez ezazu irentsi




Juan Mari Arregi

Hainbat plataforma sozialek ohartarazi dute zein ondorio izango dituen AEB eta EBren arteko merkataritza eta inbertsio itunaren (TTIP) negoziazioak. Munduko merkatu handiena sortuko du. Baina itun hori, CETA edo beste batzuk bezala, ez da merkatu akordio hutsa. Enpresa handiei eta transnazionaliei mesede egin eta produktore txikiak, kontsumitzaileak, merkataria eta herritarrak kaltetuko ditu. Plataforma horiek dei egin dute itunak "ez irenstera", kapitalismoaren espresioa direlako.

Testuinguru horretan ospatu zen urriaren 17an pobrezia kontrako nazioarteko eguna, eta datu larriak ezagutarazi zituzten, tartean Euskal Herrikoak, gurean pobreak egon badaudelako. EAEko eta Nafarroako pobrezia tasa %17 eta %13koa da hurrenez hurren, eta Iparraldekoaren daturik ez badugu ere, ez dirudi txikiagoa denik. EAEn 110.000 pertsonak sufritzen du pobrezia larria (%4,9), hau da, hilean 541,7 eurorekin "bizi" da; populazioaren %18,5, beste 415.306 pertsona, pobrezia ez hain larrian -hilean 811,90 euroko sarrerarekin-; eta 489.477 lagun (%22,7) pobrezia eta bazterkeria arriskuan bizi da. Ozta-ozta bizi diren kopuru handiena gazteak eta emakumeak dira. Prekarietatea, murrizketa sozialak eta zerga injustizia dira arduradun. Eta bitartean, aberastasunak gutxi batzuen eskuetan pilatzen segitzen du.

TTIP eta CETA moduko itunek ugaritzen dute pobrezia eta desoreka, eta giza eskubideak urratzen dituzte. Beharrezkoa da bestelako eredu ekonomiko eta soziala, aberastasunaren bidezko banaketa egiteko, politika fiskal justua eta egokia izateko, ingurumena zainduz, genero berdintasuna errespetatuz eta bizitza duina bermatuz pertsonentzat. Kapitalismoa ez da bidea.



@ALITWITT

“Hor dago GAlen buruzagia”

MADRIL. Prisa taldeak antolatuta Felipe González Espainiako presidente ohiak Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eman behar zuen hitzaldia bertan behera utzi dute, ikasleen protesta medio. “Zuek faxistak zarete terroristak”, “hor dago GAlen buruzagia” eta “hiltzaileak ez dira ongi etorriak” oihuka sartu dira. Atzeko atetik sartu behar izan dute Gonzálezek eta Juan Luis Cebrián Prisa Taldeko kontseilari delegatuak. Hainbatek ekintza kritikatu ostean, berehala etorri da ikasleen erantzuna: “Zeintzuk dira biolentzia praktikara daramatenak, miseria eragiten dutenak ala horren aurka borrokatzen direnak? Lobby mediatikoaren aurrean, protesta soziala da gure ahotsa entzun dadin daukagun azken aukera”.

Aralarko pisten proiektuak natur zaleak mugiarazi ditu

Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Enirio-Aralar mankomunitateak erabaki du autoentzako pistak natur parkeko artzain-txabola guztietara eramatea. Proiektuak berehalako oposizioa izan du berriz ere mendizale eta ekologistengandik, eta mobilizazioak hasi dituzte.

Zergatik pistak?

Zenbait artzainek tarte luzea egin behar izaten dute oinez edo zaldiz txaboletara ailegatzeko. Gipuzkoa-ko Aldundiaren eta mankomunitatearen asmoa da pistetan barrera autoak txaboletaraino irits daitezela.

Zer kalte?

4,4 kilometro luze eta 3 metro zabaleko pista Saltarriraino (1.120 m), zenbait tokitan 5 metroko garaierako harri-lubetekin. Landarlan natur taldearen esanetan lurzoruan eta faunan kalte handiak eragingo ditu.

Alternatibarik?

2002an antzekoa egin nahi izan zenean, Aranzadi Zientzia Elkarteak beste bide batzuk proposatu zituen: txabola batzuk tokiz aldatzea, airezko garraioa... “Artzaintzak ezin du Aralar urbanizatu” kontsignapean.

LAN GATAZKA



urte eta 3 hilabeteko espetxeratzea eskatzen du fiskaltzak Etxebarriko TMA enpresako bi langile ohientzat, enpresa itxi zenean egindako mobilizazioengatik.

5

urte eta 6 hilabeteko espetxeratzea eta 9.000 euroko kalte-ordaina eskatzen du berriz, enpresariak. Bi langileak babesteko manifestazioa egingo dute azaroaren 27an.



NAFAR TELEBISTAK EMITITZEARI UTZI DIO

Urte eta erdi emititzen aritu ostean, langileek batuta eman dute berria: “Egoera ekonomikoa jasanezinean gaudelako emititzeari utzi egingen diogu. Agur bat baino, gero arte bat izatea espero dugu”.



FERNANDO LARRUQUERT HIL DA

Ama Lur euskal zinema modernoko lehen filma (1968) zuzendu zuen Nestor Basterretxearekin batera eta zinema, argazkigintza eta musika izan zituen sorkuntza ardatz. Irungo bere etxean hil da, 82 urterekin, Fernando Larruquert.



TRANSEXUALITATEA DESPATOLOGIZATU

Transpatologizazioa Nazioarteko Sareak nortasun transexualak despatologizatzea eskatu du, sexu edo genero nortasun desorekatzat hartzeak transexualengan ondorio larriak dituelakoan. Intersexualak ere gogoan hartu dituzte.

Monsantok eta AEBek Vietnam kiskalita mende erdira erosi egin dute



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Vietnamgo ordezkariak ez da izan Holandako Hagan nazioarteko herri auzitegian Monsanto epaitu duenean, urriaren 14tik 16ra. Gerra bukatu eta gero sortutako gurasoen haurrak gaixoarazten ditu korporazioak ekoiztutako Agente Laranja pozoiak, hegazkinak kutsatutako oihanak ez dira biziberritzen... eta hala ere Vietnamgo akademiko eta agintariek Monsanto zabaltu dizkiote ate guztiak.



Joxe Manuel Lujanbio *Txirritak* Kubako gerrari jarritako bertsoak bere gain hartzen ahal lituzke Ho Chi Mihn deiarri jarraituz borrokan leher egindako hainbatek: "Azkeneko estranjerua egin zen islaren jabe / Len ere Kuba saldu ziteken hainbeste gizon hil gabe".

Bi milioitik gora pertsonak –zenbaiten kalkuluetan ia lau milioik– galdu zuten bizia. II. mundu gerran jaurtitako bonben hiru halako lehertu zituzten yankiek. Oihan eta soro guztien %15 kiskali zituzten airetik isuritako pozoiz. Dow Chemical eta Monsanto ekoiztutako Agente Laranja famatutik 45 milioi litro lurrindu zizkieten hegazkin eta helikopteroetatik. Hamarkadak geroago, 2016an, dioxina hilgarri haren saltzaile izateagatik auzitegi berezi batek Hagan epaitzen zuen bitartean, Monsanto nagusitzen ari da Vietnamgo nekazaritzaz.

Epaketaren egunetan *The Ecologist* aldizkarirako kronika bila Mick Grant ikerlaria ez da Hagara hurbildu, Vietnamera baizik. Oina lurrean jartzearekin, ilunabarrez, jabetu da kontsumismoaren ikono yanki guztiek argitzen dituztela Saigon/Ho Chi Mihn Hiriko etorbideak: Starbucks, Golden Arches, KFCri aurpegia jartzen dion Colonel Sanders, Coca-Cola... Ez ordea Monsanto: "Hemen Monsanto esatea Apokalipsia aipatzea da". Da... ala zen?

1961etik 1971ra bitartean iparramerikarrek gerra kimiko eta biologikoaren ataltzat barreiatu zuten Agente Laranja dioxinaduna, herbizida eta hosto gal-

tzaile bortitza, zuhaitzak ihartuz soldadu eta gerrillari komunistei kentzeko oihan tropikalen babesa eta, arroz soroen gainean isuriaz, etsaia janaririk gabe uzteko.

Mick Grantek Gerrako Oroigarrien Museoa bisitatu du, Ho Chi Mihn Hirian. *The Ecologist*eko kontakizuna abiatu du museoa girotzen duen musikari baten argazkiarekin: pianoa jotzen gizon itsua... ez, itsua baino gehiago, begientzako txokorik gabeko aurpegiz sortua. 17 urte, ditu mutikoak, hirugarren belaunaldian eragin dio hondamendia Agente Laranjaren dioxinak.

Mendebaldeari ireki aurretik Gerrako Krimenen Museoa deitzen zen honetan ikus daitezke pozoiek gaur oraindik haur eta gazteengan eragiten dituzten izugarrikeriak, begi, beso, zango, buru... klase guztietako gutxitasun eta deformazioak. Gainerako biktimek bezala, pianistak ere ez du inolako kalte ordainik jaso, horroreen erakusleioa musikaz girotuz eguneroko arroza irabazten saiatzea geratzen zaio.

Hain da bortitza Agente Laranja, ezen eta arma hura erabili zuten militar eta enplegatu yanki asko ere gaixotu baititu. Haiek eta haien ondorengoak, ADNan kalteak eragiten dituelako. Etxeko beteranoengandik 291.000 kexu jaso ditu urteotan Washingtongo gobernuak; haiei erantzuteko 1.500 milioi dolarrez goiti xahutu ditu.

Ez zuten zorte bera eduki Vietnamgo kaltetuek AEBetan aurkeztutako kexuek,

inolako indemnaziorik ez dute lortu, ez Monsanto edo Dow korporazioetatik, ez gobernutik. Aldiz, gerraren eta pozoiketaren buru nagusia izan zen Henry Kissingerrek 1973an Bakearen Nobel Saria eskuratu zuen, negoziaketetan Vietnamentan ordezkari zen Le Duc Thorekin batera. Le Duc Tho, Bakearen Nobel Sariari uko egin dion gizaki bakarra...

Pozoitzailea elikatzaile

Mick Grantek ondoko egunetan lekuko beste ikerlari batekin, giza eskubideen aldeko militantea, bisitatu ditu Mekong ibaiaren erribera oparoak. Zertan ote dira U-Minh parkeko parajeak, duela 50 urte yankiek suntsitu arte oihan tupitu zirenak?

Gida batek daramatza txalupan. Basorik ez, baina ibai bazterrak bananondo jositik ageri dira. Azkenean lortu dute gidariak nonbait lehorreratzeari; bananondo ilarak zeharkatuta aurkitu dute zein nekez ari den biziberritzen antzina oihan tropikal sarria izandakoa. Zuhaitzak oso urri datoz, bestelako landareak bezala, abere basatien arrastorik ez. Eukalipto plantazioak ere egin dituzte, dioxinaren aurrean gogorragoak omen.

Errioan behera jota, Mekong delatko mangladiak itxura hobea dute. Baina itxura besterik ez, lagun vietnamdar ikerlariak erakutsi dionez. Funtzionarioek mangle berriak landarazi dituzte, baina kosmetika da beste ezer baino gehiago. Agente Laranjak erre ostean, etsai berriak dauzkate hemengo padu-



'Business Insider' gunean Paula Bronstein argazkilariak ipinitako 11 argazki lazgarrien artetik eramangarrienetakoa hautatu du: ama gazte bat bere bi seme ezindu zaintzen. Mutikoek nabarmen ageri dituzte 1961-1971 artean Monsantoek ekoiztu eta AEBetako armadak jaurtitako Agente Laranja eragin kalteak, kutsatutako guraso edo aitona-amonengandik jasoak. Gaur Monsanto Roundup eta transgenikoak saltzen ditu Vietnamen eta bertako unibertsitateekin ikerketa programak partekatzen.

rek: urtegi handiek ur emaria gutxitzea, izkira eta otarrainxken haztegi erraldoiak... eta klimaren aldaketa.

“Baina –dio Grantek– Monsanto etekina atera nahi dio klimaren beroketari ere: lehorteari aurre hobeto egiten dioten landareen haziak patentatu, ur gaziagoetan bizirauten duten arrozak... Mekong ibarrean itsasoaren maila gora ari baita. Baina egun batean uraren maila horientzako ere gehiegi igoko da”.

Laguna eta biek itzuli bat egin dute nekazaritzako horniketa almazenetatik. Mundu osoan bezala, hemen ere Dow Chemical, Bayer, Syngenta, BASF eta beste agro-erraldoien hazi, ongarri sintetiko eta pozoioak. Non da Monsanto?

1998an erositako konpainia baten marka darabil: DeKalb Genetics. Aurretik, 1995ean AEBek Vietnamen kontrako enbargoa kendu bezain fite itzuli zen

Monsanto. Enbaxada amerikarrak gonbidatu zituen multinazionalaren aditu eta buruak transgenikoen abantailak hitzaldiak ematera, haien hazi eta pestizidetan datzalakoan Vietnamgo elikagai eskasiaren konponbidea.

Konbentzitu dituzte lekuko goi funtzionario eta politikoak, antza, edo menturaz erosi. 2014an lau transgenikoren ereite esperimentala onartu zuten. Bidean daude arroz transgenikoen baimeak. Ho Chi Mihn Hiriko zenbait erakunde adierazi du 2020rako Vietnamgo uztu guztien %30-50 genetikoki eraldatutako hazietakoak izatea nahi dutela. Neurri horretan geratuko da ekoiztutako laboreen kontrol osoa –haziak eta pozoioak, biak loturik– patenteen jabeen esku.

Milioika herritarrek oraindik nozitzen dituztenean aspaldiko Agente Laran-

jaren dioxinen mutilazioak, Roundup –glisofatoa– sartzen die vietnamdarrei Monsanto, pozo horrekin bizirauten duten hazi transgenikoekin batera. Hainbat eritasun egotzi zaizkio glisofatoari, autismitik minbizi eta jaiotzatiko gaixotasunetara, naturako ekosistemetan eragiten dituen gain. Monsanto eta Coca-Cola: AEBek eraso militar beldurgarritz lortu ez zutena, Vietnam menderatzea, lortzen ari dira merkatuak, kultura eta elikagaiak kontrolatuz.

Bitartean, planetaren ia antipodetan, Monsanto Auzitegiak aztertu ditu multinazionalaren kontrako krimen salaketak Hagan. Vietnami buruzko bi galdera ebatzi behar zituen: ea Monsanto denez gerra krimenen erruduna AEBetako armadari herritarrek sarraskitzen laguntzeagatik eta Agente Laranja ekoiztu eta salduz ekoizidua egin ote zuen. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Gurutzne Etxeberria, euskara irakaslea

«Mexikon oso esker oneko jendea izan dut inguruan beti»

Amezketarra Mexiko DF-n euskara irakasle, unibertsitateetan eta euskal etxean. Baina ez da ikasle gaztearen urtebeteko pasadizoa, bertan errotu den emakumearen ibilia baizik.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Zer egiten du amezketarrak Mexikon?

Ahal duena!... Zer nahi duzu, hasieratik kontatzen hastea?

Hartuko nuke.

Euskara irakasle nintzen. Hamalau-hamabost urte baneramatzan lanean, gehienak Oreretako udal euskaltegian egin nituen –urte bat Pasaian–, gustura ari nintzen, baina 40 urte betetzera ere banindoa, eta urtea joan, urtea etorri, berritasunik ez. Euskaltegian ere ikasle kopurua ere hortxe, beherantz, eta irakasleoi eusteko, berriz, ikasleak behar, bestela ez zegoen. Hortik ere kezka. Eta, azkenik, koadrilako lagunak ere familia osatzen. Behin, igande baten, lagunartean bazkaltzen hamabi lagun, eta halako batean, bakarrik geratu nintzen mahaian. Bata umeari kasu egitera, beste komunera laguntzera... sakabana-itu egin zitzaizkidan. Denek bere bidea egina zutela iruditu zitzaidan, eta ni, aldiz, bakarrik nengoela. Bai, banuen familia, gurasoak, anaia-arrebak, ilobak, baina, modu batera, bakarrik. Eta orduan, euskaltegiko korridorean, batek: “Adu al duzue? Euskara atzerrian irakasteko deialdia egin dute, Mexikon, Varsovian...”. Gogoan hartu nuen, eta izena eman nuen, curriculum bidali eta egin beharrekoak egin nituen. Denbora joan zen, eta ezer ez. Harik eta handik

sei hilabetera deia jaso nuen arte. Elkarrizketa bateko hitzordua. Aukeratu artean nengoela, eta destinoa ere aukera nezakeela.

Eta Mexikora zu.

Ez nuen batere pentsatu beharrik izan: Mexikora! Varsovia baino askoz erakar-garriagoa egiten zitzaidan. Gero, esan ere egin zidaten: “Baina ez atzera egin orain. Behin baino gehiagotan damutu zaigu jendea. Izena eman, aukeratu izan dela esan, eta ezetz, ez doala”. “Trankil alde horretatik, ni bai, joango naiz”. 2005eko irailean joan nintzen. Urtebeteko zen asmoa, baina hamaika egin ditut.

Mexikoko Unibertsitatean irakasten hasi zinen.

Usteko nuen bilera bat egingo zela, unibertsitateko ordezkariak, Jaurilaritzarenak, ni neu... Euskaraz ikasteko ikas-taroan matrikulazioak eginak egongo zirela, ikasleren bat edo beste izango nuela zain... baina bai zera. Ezer ez. Neuk hasi behar izan nuen: Txindokiren argazkia banuen, Donostiako Kontxakoa... haiek handitu, bertan neure eskuz idatzi kurtsoari zegozkion oharrak: izen-ematea non, eskola-egunak, orduak... Hartu neuk egindako afixak eta unibertsitatean batean eta bestean jarri

nituen. Eta sekulako arrakasta, jende mordoak eman zuen izena. Ehunen bat, eta hortxe ibili zen beti ikasle kopurua.

Zeure kontura egin zenuen.

Bai, Mexikon gauzak nola diren ikasi nuen orduan. Gogoan ditut erabili nituen argazkiak. Gero, ikasle batek esan ere egin zidan: “Bai, zuk jarritako argazki horietako bat kortxotik kendu eta etxean daukat, logelan jarrita”.

Betiko galdera beti: nork eman zuen izena, nork du euskaraz ikasteko interesa Mexikon?

Usteko nuen euskal jatorrikoak izango nituela ikasle gehienak, hemendik hara joan beharra izan zutenen ondorengoak, baina unibertsitateko errealitatea ez zen hori. Hamarretik batek zuen hemengo jatorria. Gainontzean, denetatik zegoen. Akordatzan naiz batek esan zidala amona euskalduna zuela, alzehime-rrak jota zuela, eta euskarara itzuli zela orduan. Biloba hark euskara berresku-ratu nahi zuen, neurri batean bazen ere, amonari hitz batzuk euskaraz esateko, eta ahal bazen hari zer edo zer ulertze-ko. Horrek hunkitu egin ninduen. Askok musikagatik eman zuen izena.

Musikagatik?

Bai, Ferminen musika.



Gurutzne Etxeberria

1966, Amezketa

Ikastola-umea da. Amezketan, auzoko ganbaran ekin zion ikastolari, eta elizako sakristia ere ezagutu zuen Ordiziako ikastolara baino lehen. Euskara irakasle izan zen Errenteriako udal euskaltegian Mexikora baino lehen. Gaur egun, euskara eta euskal kultura irakasle da Mexiko DF-ko UNAM unibertsitatean.

Fermin Muguruza?

Bai, jainkoaren pare jarrita daukate han Fermin Muguruza. Hemengo beste zenbait talde ere ezagutzen zituzten, nik ezagutzen ez nituenak, edo nik baino askoz gehiago zekiten haiei buruz. Batek, euskaraz irakurtzeko gai izatera iritsi nahi zuela esan zidan. Baziren arrazoi xelebreak ematen zituztenak. Batek esan zidan aitak artzain-txakurra eramanez zola Madriletik, begiratzen hasi eta “euskal artzain-txakurra” omen zen, eta txakurrari euskaraz zuzendu nahi zitzaioleko eman zuela izena euskarazko ikastaroan. Beste bat, xelebrea, Japoniako marrazki bizietako kantuak ikasi nahi zituelako etorri zen. “Baina hori ez da euskara!”, esan nionean, berak: “A, ez al da euskara?”. Beste batek esan zuen Europako aborigenak ezagutu nahi zituela. Horrela.

Hutsetik hasi zinen.

Eskolak irekiak eta doakoak izan behar ziren, hau da, unibertsitateko ikasleentzako ikastaroa zen, baina zenbait leku libre utzi genituen, nahi zuenarentzat. Hamarretik bederatzi leku, Mexikoko unibertsitate autonomoko ikasle, irakasle edo langileentzat izango ziren, eta bat kanpoko jendearentzat. Eta kanpoko horietan, euskal jatorrikoak ziren gehienak.

Mexiko DF-ko euskal etxearekin bat egin da ari zinen?

Ez, euskal etxeak berak ere euskarazko eskolak eskaintzen zituelako, baina han ere neu nintzen irakasle. Bietan. Jakina, distantziak handiak dira han, eta handiak ez direnean ere, hor da trafikoa, ikaragarritzko oztopoa. Nik neuk hamabi kilometro ditut unibertsitatetik etxera, hau da, ordu eta erdi. Eta beste ordu eta erdi, itzultzeko. Hiru ordu bidean, lau eskola-ordu emateko. Nekea handia da. Hemengoa luxua da. Hemen gehienek etxean bazkaltzen dute. Han ez da horrelakorik ezagutzen.

Zertan da hiriburuko hango euskal etxea?

Aldaketa handia ikusi dut joan nintzenetik hona. Jende gehiago joaten zen, orduan, zahar eta gazte. Gazteak, guraso gazteak, ume txikiak hartu eta bertara joaten zirenak. Ume horiek ezagutu dute euskal etxea –behintzat, ezagutu dute–, eta baliteke hortik segida etortzea, baina beraiek erabaki beharko

Taloea

“Talo zalea nintzen hemen, eta hara joan eta talo-janak egin behar nituela pentsatu nuen. Baina aurreneko hozka egin, eta nire buruak ezetz esan zuen. Gero konturatu naizenez, hango arto-irinak karea du, eta kare gustua, eta hori ez zait gustatzen. Artisan taloak, eta etxean egindakoak, aldiz, diferenteak dira, askoz hobeak. Karearen ondorioa izan liteke, berriz, mexikarrek hortzak, hezurak eta ilea osasun oneko izatea”.

Euskal etxea

“Oso mexikarra da. Bigarren, hirugarren belaunaldiko jendea duzu han nire adinekoa, mexikarra. Badira lauburuak eta ikurrina, bada sentimendua, baina euskal etxe mexikarra da. Euskal etxeak funtzio batzuk zituen garai batean, eta beste batzuk ditu gaur egun: txoko bat da, biltzeko, futbola ikusteko edo musean egiteko”.

Atzerria

“Iaz, eta orain dela bi urte, bosten bat e-posta jasotzen nituen egunero hemendik, Mexikorako asmotan edo nahian zegoen jendeak bidalitakoak. Euskal etxera euskaraz jotzen zutenei nire helbidea ematen zioten, eta ehunka eta ehunka mezu jaso izan nituen, hango egoeraz galdezka, zer lan egin ote zezaketen. Baina han ere ez dago garai bateko erraztasunik”.

dute hori, euskal etxera joan, ez joan. Hala ere, gaur egun euskal etxean apenas umerik ikusten den. 110 urte inguru ditu euskal etxeak, eta handik hona asko aldatuko zen egoera, seguru, zeren nik hamar urte daramatzat Mexikon, eta aldaketa handiak ikusi ditut bertako euskal etxean. Arrazoiak? Globalizazioa ere bai. Gaur egun ez dago nostalgirik, bigarren, hirugarren generaziokoak dira, mexikarrak, eta nahi badute, udaro etorriko dira Euskal Herrira. Han, berriz, eguneroko bizimoduan lanean leporaino bizi dira.

Euskal etxera joateko indarririk gabe.

Laneko orduetaz gain, etxetik lanera eta lanetik etxera bidean egiten dituzten orduak ere kontuan hartu behar dira. Eta euskal etxera gabe ere, aisialdiko aukera asko dituzte. Halako gainbehera bat ikusi dut euskal etxean. Akaso buelta emango diote, akaso. Ematen ez badiote, zer edo zergatik izango da. Onerako ere izan liteke. Batek daki hori.

Nola moldatu zinen Mexikoko bizimodura?

Euskal etxera joan nintzen hara heldu eta hamabost egunera. Neure burua aurkeztu eta, ezertan laguntzerik baneu, hantxe nengoela ni. Haiek, berriz, pozik, aspaldi ez zutela euskarazko irakaslerik, bakarren baten bila ere bazebiltzala, umeei zer edo zertan hasteko besterik ez bazen ere, larunbat arratsaldetan. Nik baietz, eta han ere hasi nintzen. Jai eta aste, denbora dena bete nuen. Eta eskola haien bidez lagunak egin nituen. Bitartean, igandea besterik ez libre, eta etxea jaso, merkaturen bat ikusi, paseoren bat... Gogoan daukat irteera bat, aurrenetakoa, Migel Arregi eta Mikel Plazaolarekin, Santu guztietan egin genuena. Ospakizun handia han. Gaez hilerrira joan eta hango lorea, hango janaria, hango kantua eta hango kandela emana. Kanposantuan jaten eta edaten jendea.

Txoke handia behar du: Amezketa-Mexiko DF.

Bi mundu zeharo diferente, baina Mexiko DF-n bertan ere, hainbat bizimodu ezberdin dituzu. Baina hemendik hara, egia da gauza batzuk zeharo ezberdinak direla: eguneroko bizimodua, ohiturak... Han zarenean, hangoa onartu beharra daukazu. Ernegazioak ez du balio han.



“Baziren euskara ikasteko arrazoi xelebreak ematen zituztenak. Batek esan zuen Europako aborigenak ezagutu nahi zituela”

Urtebeteko joana, hamaika egin dituzu han.

Ez zen urte erraza izan, kurtsoa neronek abiatu beharra, bizitokia bilatu... Urtea eman nuenean, “Bigarren urtea ez duk okerragoa izango”, pentsatu nuen, eta hantxe segitu nuen, urtero erronka berriei aurre eginez. Lehenengo urtean, unibertsitate batean, gero bitan, gero hirutan... Hemengo Jaurlaritza eta hango unibertsitatearen arteko hitzarmen-

nak, berriz, hiru urteko iraupena zuen. UNAM unibertsitate autonomoko esperientzia pilotuak izandako arrakastaren ondorioz, Monterreyko Unibertsitate Teknologikoa ere euskarazko eskolak eskaintzen hasi zen, eta hurrena, Pueblako Unibertsitate Iberoamerikarra. Horrela, harrapatuta geratu nintzen.

Zeure sarean harrapatuta.

Gustura harrapatuta. Erronka berriak

ziren urtero, eta haiei aurre egiten nien. Bestalde, oso esker oneko jendea izan dut inguruan beti. Ikasleak, zoragarriak zaizkit. Bete egiten naute, eta hantxe eusten. Apurra eman diedala iruditzen zait, eta aldiz, haien esker ona ikaragarria da. Neu nagoela beraiekin zorretan iruditzen zait. Gauza asko erakutsi dizkidate. Nik programako paperean jartzen zuena erakutsi diet, baina bestelakoak erakutsi dizkidate ikasleek:



Azken hitza: Gurutzne

“Txikitan Lekeitiora joaten ginen udan. Gurutze nintzen ni, baina han baten batek esan zuen: ‘Gurutze? Mutil izena da hori. Gurutze beharko du neskarena!’. Eta, gero, etxean ere hasi begiratzen eta Josu-Josune eta horrelakoak, eta azkenean, Gurutzne”.

umiltasuna, zintzotasuna, esker oneko izatea... Eguneroko bizimoduan baloratzen ez ditugun gauzak baloratzen lagundu didate.

Hemen ez zen horrelakorik?

Ez, eta arrazoiak hainbat izan litezke, baina aurren-aurrea, jendea ezberdina dela han eta hemen: izaeraz eta kulturaz. Beste alde batetik, hemen, helduak “behartuta” joaten dira euskaraz ikastera, han ez bezala, han beren gogoz joaten dira.

Eta nola ikusten duzu Mexiko, hona hel-tzen zaigun irudiaren arabera: Ciudad Juarezeko feminizidioa, AEBetara migrazioa, ustelkeria, ezberdintasun sozial handiak...

Eta nola ikusten duzu Europa? Ustelkeria politikoa, migrazioa, ezberdintasunak... Nola dago Europa? Haurrak goseak akabatzen, Europako ateak irekitzen ez ditugulako. Bi garrasi egin eta aurrera, hurrengo iragarkia: “A zer autoa! Zenbat balio ote du? Hurrena horixe behar dut nik!”. Hori da hemen-

go errealitatea, Mexikokoa bezalakoa. Egia da oraindik ere deigarri egiten zaidala Mexikoko kalean hainbeste ume eskean ikustea, edo obratan lanean hamar-hamabi urteko mutikoa, edo emakume asko, eskean, umeak lepotik zintzilik dituztela, eta emakume edadeko asko tartean... Amaren irudia etortzen zait orduan. Horiek denak ikusi eta jendeak esaten zidan: “Jarriko zara!”, ohituko nintzela horiek ikusten, esan nahi zuen. Eta nik neure artean: “Ez al naiz jarriko!”. Eta ez naiz horretara jarri. Horiek ikusten ohituko banintz, niretzat akabo.

Herrialde aberatsa da Mexiko.

Aberastasuna gaizki banatuta dago, ordea, Mexikon, Europan eta munduan. Mexiko, dagoen lekuan dago, AEBetara igarobidean, bertatik dabil droga guztia, eta AEBetara doa, han kontsumitzen delako. Narkotrafikoa ez da, bakarrik, Mexikoren arazoa, AEBena ere bada. Ciudad Juarezekoa dela eta, ez pentsa guk, Mexikon, askorik dakigunik. Dabilen moduan dabil informazioa. ■

Praktikatu eta Bizia

Jardunaldia

III. edizioa Bilbon, 2016eko azaroaren 4an

JARDUNALDIAREN HELBURUA

Aurtengo jardunaldian, saiatuko gara eragiteko errezetak topatzen, hizlarien laguntzaz eta psikologiaren ikuspegitik. Horretarako, eremu bi alderatuko ditugu: batetik, entzungo dugu zelan ulertu, jokatu eta aritu behar dugun gune urbano nagusiki erdaldunetan; bestetik, jakingo dugu nolako garrantzia duen norberaren hizkuntz jokaerak arnasmune deritzegunetan, bai eta praktika onak ezagutu ere. Lehen-lehenik, baina, ahaleginduko gara antzematen (eta partekatzen) zer den akuilu norberaren motibazioan...

EGITARAUA

09:30 Harrera eta ongi etorria
10:00 Praktiken altzoan
 Eduardo Apodaka
10:30 Mintzapraktika programak euskahalduntzerako bidea
 Gemma Sanginés Mikel Urdangarin
11:30 Atsedena: Kafea
12:00 Coachinga mintzapraktika taldeetan
 Amaia Agirre
12:30 Mahaingurua hizlari guztiekien.
13:30 Agurra

LEKUA

Ondare aretoa (M^a Diaz de Haro, 11) Bilbo

IZENA EMAN

praktikatu-jardunaldia.blogspot.com

Antolatzailea:
Babestak:

Salatzen dut

5 urte. 1.825 egun. 43.800 ordu. Horixe Aieteko Konferentzia eta Adierazpenetik igarotakoa. Denbora laburra edo eternitatea, nondik begiratzen diogun.

Aurretiaz egindako lana tarteko, konferentziaren emaria berehalakoa izan zen. Adierazpenaren lehenengo puntuari erantzunez, hiru egun beranduago iragarri zuen ETak jardun armatuaren behin betiko amaiera. Hortik aurrerako bidea malkartsuagoa izan da. Horrelako prozesuetan gutxitan ikusitako arduragabekeria erakutsi dute Espainiako Gobernuak (aktiboki) eta Frantziakoak (pasiboki). Bake bidean egindako ahalgin guztiak oztopatzeko borondatea agerikoa izan da hasieratik. Armagabetzean laguntzeko prest agertu den Nazioarteko Egiaztatze Batzordea Entzutegi Nazionalera deklaratzera deituzetik, Carlepont-eko armategiaren azken operazioa. Guztia Espainian ohikoa den tonu hantuste zaharkitu eta atzerakoiarekin. Hispanitatea eta arraza, ezer gutxi espero daiteke genozidio basatia egun nazionalizat ospatu eta, are, egun horri lotuta polizia operazio bati "aurkikuntza" deitzen dion Estatu batengandik. Oztopoak oztopo, armagabetzeko borondateak irmoa dirudi eta modu ordenatu eta egiaztagarrian egiteko formula topatu beharko da.

Beste alorretan ere, Estatuen gogoz bestera, euskal norbanako, eragile eta erakundeei esker eman dira urratsak. Behar eta nahi beste ez agian, baina aurrera egin da Aieteko bide-orrian zehaztutako hirugarren eta laugarren puntuetan, alegia, biktimen aitortzan eta elkarrizketa politikoan. Azken honi dagokionez, esaten digute oraindik denbora gutxi igaro dela eta hainbeste sufrimendu eragin duen gatazka baten ostean denbora gehiago behar dela. Neurri batean egia izan daiteke eta



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Bost urte denbora laburra izan daiteke, baita eternitatea ere. Eternitatea baita oinarrizko eskubideen urraketa erreparatuta. Eternitatea maite duten pertsonarengandik ehunka kilometrotara lo egin behar duten euskal herritarrentzat. Inongo kondenatan agertzen ez den zigor gehigarria jasotzen dute oraindik preso, senitarteko eta lagunek, kartzelaldia ahalik eta mingarri eta gogorrena egitea baita helburu bakarra.

badirudi eragile politikoak ere egoera berrira egokitzeko trantsizio-epetan daudela oraindik. Alta, iritsi beharko da eguna non denborak aitzakia izateari utzi eta auzi politikoari errotik heltzea lehentasun bihurtuko den, denborarik galdu gabe.

Bost urte denbora laburra izan daiteke, baita eternitatea ere. Eternitatea baita oinarrizko eskubideen urraketa erreparatuta. Eternitatea maite duten pertsonarengandik ehunka kilometrotara lo egin behar duten euskal herritarrentzat. Inongo kondenatan agertzen ez den zigor gehigarria jasotzen dute oraindik preso, senitarteko eta lagunek, kartzelaldia ahalik eta mingarri eta gogorrena egitea baita helburu bakarra. Finean, mendekua. Urrunketaz gain, gaixotasun larriak dituzten presoak ez askatzea eta kartzela barruko baldintza jasangaitzak aipatu behar dira. Beste askoren artean, horren adibide ankerra da Arantza Zulueta abokatuaren egoera. Bi urte eta erdi baino gehiago daramatza bakartze modulan, isolatuta, bizi-tzeko baldintza lazarri eta penagarrietan: indarkeria giroan, intimitate barik eta beste inorekin egoteko eta inolako jarduerarik egiteko aukerarik gabe.

Aieteko bigarren puntuak egiten dio erreferentzia gatazkaren ondorioei, baina ezin dugu Espainiako eta Frantziako Gobernuen jarrera aldaketaren zain egon. Giza eskubideen zapalketa lazarri honi aurre egiteko funtsezkoa da gizarte zibila aktibatu eta antolatzea, baita bertako alderdi politiko eta erakundeen konpromisoa ere. Horretara dator Sarek –euskal presoen eskubideen aldeko gizarte mugimenduak– abian jarritako #SalatzenDut dinamika. Konponbide demokratiko batean sinesten dudalako eta ez dudalako egun bat bera ere egoera jasangaitz honetan jarraitu nahi: salatzen dut. ■

Zuzentzaileak

Zuzentzailea oso figura ezaguna zen komunikabideetan, erdarazkoetan bezala baita euskarazkoetan ere. Ez naiz ari zuzentzaile informatiko horietaz, haragi-hezurrezko gizakiez baizik. “Zen” esan dut, ez baitakit gaur egun ere dirauen. Ez du ematen, izugarriak baitira ia egunero irakurtzen eta entzuten ditudan akats potoloak medioetan. Agian krisialdia dela-eta, kostuetan aurreztearren desagertu egin dira zuzentzaileak lantaldeetatik.

Anekdotak asko kontatu nitzake zuzentzaileen harira. Lasai! Bakarren bat baino ez dizuet aipatuko. Gazte nintzeanean, Bilboko Herri Irratian bazegoen esatari oso ezaguna, euskaldun-zaharra. Saioa erdaraz izan arren, bera saiatzen zen gero eta euskara gehiago erabiltzen. Kontua da norbaitek esan omen ziola bizkaieraz “dau” esaten bada ere, euskara txukunean “dago” esan behar dela. Hortaz, halako batean hasi zen horrelakoak esaten: “Entzule honek nahi dago entzun”. Hobetu nahian, txarragotu egiten zuen, kakaztu. Horri zuzenketa barik sasi-zuzenketa edo deitu beharko genioke. Urtetan egon nintzen *Egin* egunkarian kolaboratzen, erreportajeak (*freelance*) zein, eta batez ere, zutabeak idazten. Bada, sarri-sarritan haserretu nintzen ustezko zuzen-



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Lehengo astean EITBren newsletter-ean titular hau irakurri nuen: “Felipe Gonzalez Pedro Sanchezengatik engainatuta sentitzen da”. Oso larria iruditu zitzaidan

ketengatik. Behin, adibidez nik “erail” jarri (asasinatu nahi nuelako adierazi) eta berak, zuzentzaileak, “erail” ezabatu eta haren ordeztu “eho” jarri (“ero” izan

balitz, gaitz-erdi!). Beste behin, antzekoa: nik “begirada” jarri, berak kendu eta “behako” idatzi. Oraindik ez dut ulertzen zergatik egiten zituen horrelakoak. Horiek ere ez ziren zuzenketak; izatekotan hiperzuzenketak izango ziren, ondo dagoena zuzentzeari horrela esaten baitzaio. Konturatu zarete ez dudala izenik aipatu, berak erakutsi ez zidan begirunea badiodalako nik.

Hau guztia zergatik aipatzen dudan orain? Bada, lehengo astean EITBren newsletter-ean titular hau irakurri nuelako: “Felipe Gonzalez Pedro Sanchezengatik engainatuta sentitzen da”. Oso larria iruditu zitzaidan. Gorago esan dudanez bezala, tamalez maiz ikusten eta entzuten ditut horren antzekoak; baina medio publiko batean eta idatziriko titular batean gehiegizkoa iruditu zitzaidan, besteak beste, EITBren helburuetako bat badelako, hain zuzen, euskara sustatzea eta, esan gabe doa, zaintzea. Nire ustez, beharrezkoak dira zuzentzaileak. Beti dago “baina”ren bat, ordea. Beharrezkoak dira, bai, baina euren lana egitera mugatuko balira. Hau da, txarto dagoena zuzendu –beti ere edonori zor zaion errespetua adierazita, jakina–, eta ez berari ez zaiolako gustatzen, edo auskalo zergatik, gauzak alai asko aldatu. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabalduta da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



Jungla



Jakes Bortairu
AB-KO KIDEA

Calaisko “jungla” erraustekotan da. Urriko bigarren hamabostaldi honetan bertan bizi diren milaka emigrante Estatuko eskualde desberdinetan barreiatzea deliberatu du frantses gobernemenduak. Berri pozgarria izan liteke txabola auzo horretako bizi baldintzak ezagutuz. Alta, jungla hustu eta desegitea ez da aterpetze politika duin baten abiapuntua, epe motz eta funtsik gabeko jokaldia baizik, hauteskunde aurreko interes politikoek gidaturik.

Kanporaketa goaitatu gabe jungla uzten hasiak dira emigrante anitz beste nonbait gordetzeko, junglak eskaintzen zizkien antolaketa, azpiegitura, harreman sare eta seguritate minimoa galduz, bizi baldintzak gogorragoak pairatuz. Alabaina, Frantziak hilabete batzuetako “pausa” eskaintzen badie ere, emigranteek ontsa bada-kite gutxiengo tipi batek baizik ez duela lortuko bertan egoteko baimena. Gehiengoarentzat perspektiba iluna: espulzioa, abiapuntura itzultzeko mehatxua edo bizi herratua berriz hastea.

Europar Batasuneko estatuek seguritatezko problema gisa tratatu dituzte migrazio joan-etorriak azken hamarkadetan. Lanjer bat bezala ikusiak dira atzerritarrek eta haien etorrera nola edo hala oztopatu behar da. Alde batetik arazoa bere mugetatik kanpo atxikitzen saiatzen dute, lehen Libia edo Marokorekin, gaur egun Turkiarekin akordioak eginez, abantaila batzuen

truke emigranteak bloka ditzaten. Bestalde, beren mugen barnean emigranteak etengabe presiopean atxiki, bildu, barreiatu, mugiarazi, atxilotu, kanporatu, hots, benetako ehiza antolatzaren dute.

Frantzian aspaldidanik emigrante kopuru handienak iparraldeko itsasertzean kokatu dira, han blokeatuak baitira Ingalaterrara joan nahi dutenak. Hara doazen tren, kamioi eta ferryren jarioaren ertzean instalatu dira skuat eta kanpamenduak, gauero kosta ahala kosta, itsasoa zeharkatzen entseatzeko. Mugen hersteak ez ditu sekulan geldiarazi miseria, errepresioa, gerra eta gaur egun, gero eta gehiago klima aldaketatik ihes datozenak. Ez ditu migrazioen arrazoiak konpontzen, ondorioak aldiz larritzen ditu, arriskuak biderkatuz, trafikoak elikatuz, egoera lotsagarriak sortuz.

Emigranteen egoera hobetzeko aspaldidanik esparru politiko osoa kutsatu duen Fronte Nazionaleko (FN) diskurtsoa baztertu behar-ko litzateke, emigranteari buruzko ikusmoldea aldatu, arazoaren oportunitate ekonomiko eta sozialak baloratu, funtsezko eskubideen errespetu eta balore humanitarioei lehentasuna eman... Ez gara batere horretan eta heldu diren frantses hauteskunde kanpainei begira, migrazio eta emigranteak betiko mamuak bezala erabiltzen hasiak dira frantses indar politiko handienak. ■

Eguzkia osorik ikusteko zain



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

majinatu ezazue egoera hau: egunero hogeitau ordu ematen dituzue gela txiki batean eta gainontzekoak 6×13 metroko zabalera eta horma altuak dituen patio batean. Patio honetara ez da argi askorik sartzen eta bakarrik zaudete, beti bakarrik. Oso noizbehinka beste pertsona bat egoten da zuen alboko gelan, baina ezin izaten duzue honekin elkarrizketa normalizaturik izan. Izan ere, ondoko bizilagunak egun gutxirako daude zuen ondoan eta, zoritxarrez, askotan, gaitz psikiko batek jota izaten dira. Hau gutxi balitz, itogarriak dira dituzuen baldintzak, lagun eta senideekin hitz egiteko aukera oso gutxi duzue, pare bat liburu izan dezakezue soilik zuen

gela, arropa oso mugatua, argazkiak ere zenbakituak... Eta hau egunero, egunero, egunero, egunero...

Zenbat eutsiko zenukete egoera horretan? Ordu batzuk? Egun batzuk? Arantza Zulueta bi urte eta erdi daramatza egoera horretan eusten, bizirauten. Isolamendu egoera hamabost egunetik gora luzatzearen kontra hitz egin dute nazioarteko erakunde askok, torturatzat jo dute luzapena. Berriro errepikatuko dut: Arantza Zulueta bi urte eta erdi daramatza egoera horretan. Eta oraindik ez diote epaiketarik egin. Arantzak eguzkia osorik ikusteko eskubidea dauka, orain. ■

GAROÑA

HEMEN ARI DA JOKATZEN ESPAINIAR NUKLEARREN ETORKIZUNA

Otsailean iragarritakoa betetzen badu, Espainiako Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak urtea amaitu baino lehen emango du Garoñako zentrala berriro martxan jartzeko eskaerari buruzko txostena. Aldekoa balitz, eta litekeena da hala izatea, zentralaren jabeek hurbilago izango lukete itxura guztien arabera euren benetako helburua dena: parke nuklear osoaren bizitza luzatzea. Izan ere, 2012tik lo dagoen Garoña berpiztea ez litzateke batere negozio ona beraientzat. Edozelan, zaila da zer gertatuko den igartzea.



Unai Brea
@unaibrea

Ez da samurra Garoñako zentral nuklearrarekin azken urteetan gertatzen ari dena ulertzea. 2012ko abendutik geldirik dago zentrala, eta legez 2013an agortu zitzaion ustiapen aldia. Horren arabera eraisten hasita egon behar luke, baina haren jabeak, Nuclenorrekin –erdibana Iberdrolak eta Endesak osatua–, zentralaren bizitza luzatzeko baimena eskatu zuen 2014an, Espainiako Gobernuak *ad hoc* egindako legedia baliatuz. Ordutik, Industria Ministerioaren erantzunaren zain dago Nuclenor. Aurrez, ezinbesteko baldintza da Espainiako Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak (CSN) onespena ematea enpresaren eskariari.

CSNk iragarrita du udazken honean emango duela aldeko edo aurkako txostena. Orain arteko ibilbidea ikusita apustu egin liteke argi berdea emango diola Garoñak berriz funtzionatzeari, “baina hori ez da guztiz segurua”, diosku gaia arreta handiz jarraitzen duen Aitor Urresti EHUKo irakasleak. “Txostena asko atzeratzen ari da”, azaldu digu, “eta horrek esan nahi du CSN barruan ez dituztela gauzak hain argi; egia da Kon-

tseiluan gehiengoa duela PPk, eta alde horretatik baiezkoa espero daitekeela, baina...”.

Zer nahi du Nuclenorrekin?

Nolanahi, CSNk aldeko txostena emanda ere ikusi beharko da nola jokatu duten bai zentralaren jabe diren enpresek bai Espainiako Gobernuak, behingoz osatutakoan. Kontuan izan behar da, zentzu horretan, Espainiako Diputatuen Kongresuko talde guztiak, PP eta oso ordezkariak txikia duten alderdi gutxi batzuk izan ezik, Garoña berriro irekitzearen aurka azaldu direla. Nuclenorri dagokionez, kontraesan betean ari da itxuraz. Garoña 2031 arte ustiatzeko baimena eskatua du, baina ez da ahaleginik egiten ari zentrala berriro martxan ipini ahal izateko CSNk ezarri dizkion baldintzak betetze aldera.

Azalpen erraza du: Garoñan egin beharreko hobekuntzak, batzuk Fukushima-ko istripuaz geroztik sortutako araudien ondoriozkoak, beste batzuk zuzenean zentralaren diseinuarekin zerikusia dutenak, konplexuak eta garestiak dira, eta





Nuclenorreko bazkideak ez daude horiei ekiteko egoerarik onenean. Edo bestela esanda, ez die merezi; Garoña ez da oso handia, eta ez ditu sekulako irabaziak ematen. Nuclenorreko bazkideetako batek, Iberdrolak, Ignacio Sánchez Galán presidentearen ahotik iradoki du ez duela Garoña berriz lanean jartzeko berebiziko interesik. Hortaz, zertarako eskatu dute zentralak 60 urteko adina izan arte lizentzia luzatzea?

Foiletoi amaiezin hau hurbiletik jarraitu duten askok, eta orobat energia nuklearraren aurkariak, garbi dute aurreko galderaren erantzuna: Garoña da sektore elektrikoko enpresak jokatzeko ari diren karta Espainiako Estatuko beste zentral nuklearren bizitza 40 urtetik 60ra luzatzeko.

PSOE ez zen ausartu

Espainiako legedi osoan ez duzu aurkituko zentral nuklearren gehieneko iraupena zehazten duen esaldi bakarra ere. Ohituraz, denek gogoan egon da 40 urtean jarri behar dela langa, hain zuzen ere Espainiako Estatuan dauden zentralak denbora hori irauteko diseinatu zirelako. PSOEk hitzemandako 40 urteko muga txertatuko zuela legedian, eta horretarako aukera izan zuen 2008-2011 agintaldian, baina azkenik ez zuen gauzatu; araudiak, honenbestez, uneen uneko gobernuaren eta CSNren esku uzten du erabakia.

Garoña 1970ean eraiki zuten, eta urtebete geroago hasi zen martxan. PSOEren agintaldi hartan, bera zen lanean ziharduten estatuko zentralen artean zaharrena. Jarduteko lizentziak 2009an zuen iraungitze-data, zentralak 40 urte betetzetik oso hurbil beraz; baina Industria Ministerioak, une hartan itxiera agindu beharrean, beste lau urterako baimena eman zion Nuclenorri, 2013ra arte –enpresak 2019ra arteko baimena eskatua zuen–, eta data hori ezarri zuen Garoña ixteko epemugatzat, 42 urte beteta. Horrek atea zabalik utzi zuen hurrengo gobernuak Garoñaren bizitza luzatzeko, batez ere nuklearren guztiz aldekoa den PPren suertatuz gero.

PPk alfonbra gorria

2012ko ekainean, Mariano Rajoy zen Moncloako maizterra eta PPk gehiengo absolutua zuen Espainiako Parlamentuan. Hilaren 29an, Industria Ministerioak hiru urte lehenagoko agindua

baliogabetu eta aukera eman zion Nuclenorri beste sei urterako (2019 arte) baimena eska zezan. Haatik, Nuclenorek ez zituen gobernuak emandako erraztasunak baliatu, luzapena eskatzeko legezko epea pasatzen utzi zuen eta. Horrenbestez, zentralaren ustiapena amaitzeko prozedura martxan jarri zen.

Baldintza normaletan, prozedura horrek urtebete inguru iraungo zuen, eta horren ostean Garoñaren jabetza estatuak hartuko zuen, hondakin nuklearren kudeaketaz arduratzen den enpresa publikoaren bitartez (Enresa) zentrala eraisteari ekiteko. Momentuz ez da horrelakorik gertatu, bistan dena.

Ondorengo hilabeteetan gauza asko gertatu ziren. Lehenbizi, 2012ko abenduan, Nuclenorek bere kasa eta baimenik gabe utzi zion Garoñak ekoiztutako energia sare elektrikora jaulkitzeari, arrazoi ekonomikoak argudiatuta. Handik egun gutxira, eta argudio berdina erabiliz, Nuclenorek berak eskatu zuen Garoñaren ustiapena bertan behera gelditzea, nahiz eta ordurako bazuen mahai gainean horixe bera egiteko Ministerioaren agindua, handik urte erdira bete behar zuena. Kontua da Nuclenorek esplizituki adierazi zuela arrazoi ekonomikoengatik egiten ari zela eskaria, eta ez segurtasunari lotutakoengatik. Luze gabe jakin zen zehaztaper horrek norainoko garrantzia zuen.

Garoñaren neurriko araudia

2013ko uztailaren 5ean, Industria Ministerioak Garoñako zentralaren ustiapen amaierako agindua eman zuen, PSOEren agintepeko garaian ezarritakoa betez. Aginduak, hori bai, oso garbi zioen ustiapena etetearen arrazoi bakarra ekonomikoa zela. Egun hartan bertan, Gobernuak atea ireki zion etorkizunean zentrala berriz irekitzeko aukerari. Zehazki, erregai nuklearraren kudeaketari buruzko errege dekretu proiektuari aldaketa batzuk egin zizkion Ministerioak. Aldaketa horien arabera, jarduera etendako zentral nuklearrek aukera izango zuten berriro ustiapenari ekiteko, baldin eta hura gelditu izanaren arrazoiak segurtasunarekin zerikusi-rik ez bazuen, eta berriro funtzionatzeko baimena urtebeteko epean eskatuz gero. Garoñaren izena beren-beregi aipatzea baino ez zitzaion falta testuari.

Errege dekretu berria 2014ko otsailan jarri zen indarrean. Maiatzean,



Garoña behin betiko itxi dezatela eskatzeko manifestaziora deitu zuen Araba Garoñarik Gabe plataformak, 2015eko otsailaren 28an.

RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

HISTORIA “AMAIEZIN” BATEN KRONOLOGIA LABURTUA

2009-7-3: Espainiako Industria Ministerioak, artean PSOEren agindupean, 2013an finkatu zuen Garoñaren ustiapenaren amaiera. Hala, 42 urtera arte luzatu zuen zentralaren bizitza, ohiko 40en ordez.

2012-6-29: Industria Ministerioak, ordurako PPreu esku, aurreko agindua baliogabetu eta aukera eman zion Nuclenorri, zentralaren ugazabari, ustiapen baimen berria eskatzeko 2019ra bitarte. Nuclenorek irailaren 5a zuen horretarako epe-muga, baina denbora gehiago eskatu zuen. Ministerioak ez zion eman, eta Garoñaren ustiapena 2013an bertan behera uzteko prozedura hasi zen.

2012-12-16: Nuclenorek, bere kasa eta baimenik gabe, Garoñak sortutako energia sare elektrikora jaulkitzeari utzi zion, “arrazoi ekonomikoak” argudiatuta. Hala, jokatzeagatik 18,4 milioiko isuna ezarri zioten 2014an.

2013-7-5: Industria Ministerioak Garoñaren ustiapena amaitzeko agindua eman zuen, eta horixe da zentralaren lege-egoera une honetan. Alabaina, egun berean, ordu gutxira, Ministerioak tramiteak hasi zituen erregai nuklearrari buruzko errege dekretuan aldaketak ezartze al-

dera. Aldaketa nagusia zen arrazoi ekonomikoengatik –eta ez segurtasunarekin lotutakoengatik– bere jarduera etendako zentraleri berriz lizentzia eskatzeko aukera emango zitzaizela. Testu proposamen berriari Garoñaren izena espresuki aipatzea baino ez zitzaion falta. Dekretua 2014ko otsailan onartu zen.

2014-5-27: Nuclenorek, aipatutako dekretuan oinarrituta, Garoñaren bizitza 2031ra arte luzatzeko baimena eskatu zion Ministerioari.

2014-7-30: CSNk Argibide Tekniko Osagarria dokumentua onartu zuen, Garoñako zentrala berriz lanean hasteko bete beharreko baldintzak zehazten dituenak. Geroztik eta gaur arte, CSNk hainbat erabaki hartu ditu Garoñan egin beharreko hobekuntzei buruz, betiere zentralaren irekiera ahalbidetze aldera.

2016-2-3: CSNk ontzat eman zituen Nuclenorek Garoñan egindako hainbat hobekuntza, 2014ko uztailaren 30eko Argibide Tekniko Osagarrian jasotakoak. Halaber, iragarri zuen Garoña berrikitzeari buruzko behin betiko txostena 2016ko bigarren seihilekoan igorriko zio- la Industria Ministerioari.

Nuclenorrekin hura baliatu eta Garoñaren jardura 2031ra arte luzatzeko baime-na eskatu zion Industria Ministerioari. "Guztiz ezohikoa izan zen", azaldu digu Raquel Montónek, Espainiako Greenpeaceko nuklearren kanpainako arduradunak, "ordura arte zentral nuklear guztien baimenak hamar urterako eskatzen eta ematen baitziren, hain zuzen ere segurtasun-inspekzioekin bat eginez, eta hura hamazazpi urterako galdatu zuten". Lehen aldiz, espainiar zentral baten bizitza 60 urteraino luzatzeko eskaria zegoen mahai gainean. Eta hor dago oraindik.

CSNk bidea ireki

Nuclenorren baimen eskaria CSNra iritsi zen, ezerean aurretik hark eman behar baitu onespina, betiere segurtasunaren ikuspuntutik. 2014ko uztailean, CSNko Osoko Bilkurak Garoñari buruzko Argibide Tekniko Osagarri (ATO) bat onartu zuen. Hitz lauz esanda, Nuclenorrekin bere eskariari lotuta aurkeztu beharreko dokumentazioa eta bete beharreko baldintzak zehazten ditu ATOak. Modu horretan, CSNk hasiera eman zion Garoña berriz irekitzeko buruzko prozedura oraindik burutu gabeari. Bitxi-ena da bertako teknikariek, bi urteotan, kontrako bi noranzkotan lan egin behar izan dutela aldi berean: batetik, zentrala berriro irekitzeko eskaria aztertuz; bestetik, haren ustiapenaren amaierari dagozkion tramiteak eginez.

CSNk ez zuen aho batez onartu Garoñari buruzko ATOa. Osoko Bilkura osatzen duten bost kideetako batek, PSOEn agintepean Espainiako Ingurumen ministro izandako Cristina Narbonak, aurka bozkatu zuen. Merezi du bere botoaren arrazoiak eman zituen azalpenak irakurtzea: "CSNko Osoko Bilkurak ATOa onartzeko erabakia hartu zuen sakonki eztabaidatu gabe, ez ikuspuntu teknikitik ez juridikitik, zer-nolako ondorioak izan ditzakeen Nuclenorren eskariak, nahiz eta CSNren historian aurrekaririk gabeko egoera izan".

Zer ondorio izan dezake 60 urterako baimenak?

Ministro ohiaren esanetan, ez da inon serio aztertu zer onura ekar dezakeen segurtasunaren ikuspegitik zentral nuklear batek 60 urtez funtzionatzeak, kontuan izanda, besteak beste, haren bizitza luzatzearen ondorioetako bat hondakin nuklear kopurua handitzea



AGENDA

Udazken kulturala 2016




URRIAK 30, 10:00, Goiko plazan

DANTZA:

MUXIKOAK

GUINNESS WORLD RECORD



URRIAK 30, 20:00, Gezala Auditoriumean

KONTZERTUA:

EÑAUT ELORRIETA:

DESERRIKO KANTAK

8€



AZAROAK 6, 20:00, Gezala auditoriumean

TXALO PRODUKZIOAK-ANTZERKIA:

BI IZARREN KALENTURAK

8€



AZAROAK 13, 19:30, Gezala auditoriumean

KANTALDIA

MIKEL URDANGARIN

8€



AZAROAK 19, 12:30, Gezala auditoriumean

MUSIKA:

SANTA ZEZILIAKO

KONTZERTUA



AZAROAK 19, 20:00, Gezala auditoriumean

HISTRION TEATRO - ANTZERKIA:

ARIZONA (GAZTELERAZ)

Gema Matarranz aktorea Max sarietan finalista obra honekin

8€



ABENDUAK 18, 20:00, Gezala auditoriumean

LAUKA TEATRO - ANTZERKIA:

AMODIOAREN ZIEGA

8€



ABENDUAK 20, 19:30, Kultura Aretoan

IBAI IZTUETAREN HITZALDIA:

CULTURA VASCA vs.

EUSKAL KULTURA

Informazio gehigarria eta sarrerak salgai www.lezo.eus/agenda

LEZO



EBRO IBAIA GEHIEGI BEROTZEN DU GAROÑAK

Garonoako zentrala berriro lanean hasteko Nuclenorrek bete beharko lituzkeen baldintzetako bat ez datorkio CSNren eskariz, Ebroko Ur Konfederazioaren aldetik baizik. Kontuan izan behar da zentralak ibai horretatik hartzen duela funtzionatzeko behar duen ura.

2013ko uztailan –ordurako zentrala geldi zegoen–, Konfederazioak esan zuen Garoñak, berriz lanean hastekotan, neurri zorrotzagoak beharko zituela Ebro ibaiko uren erabilerari dagokio-

nez. Zehazki, esan zuen zentralak ibaira bueltatzen duen erabilitako ura beroegia dela, eta horrek ingurumen arazoak sortzen dituela.

Hori sailhesteko hozte-dorre berria erakitzeko baldintza ezarri zion Ur Konfederazioak Nuclenorri. CSNren eta Ministerioaren onespenez guztiak lortuta ere, Garoñak ezinbestean egin beharko luke obra hori, funtzionatu ahal izateko. Eta inbertsioa ez da txikia. Beste alternatiba potentzia baxuagoan lan egitea litzateke.



dela. Narbonak aurkako botoa eman du Garoñaren berririkitze prozeduraz CSNk onartu dituen ebazpen guztietan, eta prozedura hori gelditzeko eskatu du erakundeak Nuclenorri baimena ematearen ondorioez etabaida sakona egin eta iritzi publikoari azaldu bitartean.

Cristina Narbonak eskari hori egin zuen garai bertsuan, 2016ko otsailean, Espainiako Kongresuko talde parlamentario guztiek, PPK izan ezik, eskutitz bat bidali zioten CSNri, Garoña berririkitzeari buruzko prozesua bertan behera utz zezan eskatuz, “gobernu berria osatu arte”. Taldeek gutunean azaldu zutenenez, CSNk aldeko txostena egin eta jarduneko gobernuak Garoña berririkitzeko baimena emateak arrisku handi bat luke: gobernu berriak erabakiz gero indarrean dagoen ustiapen amaiera aginduari eustea, alegia Garoña behin betiko gelditzea, Nuclenorrek kalte-ordaina eskatu lezake, eta ez txikia. Belgien bistakoa denez, arrisku hori ez da desagertu oraindik, besteak beste CSNk ez diolako jaramonik egin gutunari.

Datorren hamarkadan partida nagusia

Garoña berriz lanean jartzeko baimena emateak aurrekaria ezar dezake etorkizunerako. Une honetan zazpi erreaktore nuklear daude lanean Espainiako Estatuan, bost zentralen artean banatuta. Denak ere Garoñakoa baino potentzia handiagokoak dira, bi halako baino gehiago. Eta garrantzitsuenak: pixkanaka, haiek ere hurbiltzen ari dira 40 urteko mugara.

Cáceresen dagoen Almaraz-I erreaktorea izango da baimena iraungiko zaion lehenengoa, 2021ean. Gazteenari, Gua-

» **Cristina Narbona**
Ingurumen ministro
ohi eta CSNko kide
kritikoaren esanetan, ez
da inon serio aztertu zer
ondorio izan dezakeen,
segurtasunaren aldetik,
zentral baten bizitza 60
urtera luzatzeak

» **Espainiako parke nuklear**
osoaren bizitza luzatzeaz
erabaki beharko da
2012-2028 bitartean,
eta zentralen jabeak
Garoñako berberak dira

dalajaran dagoen Trillori, 2028an egokituko zaio txanda. Hots, Espainiako parke nuklear osoaren bizitza luzatzeaz erabaki beharko da zazpi urteko tartean. Garoñaren bi ugazabetako batek, Iberdrolak, zentral guztietan du parte hartzea, eta kasuren batean zentral osoa. Endesaz ia beste hainbeste esan daiteke: denetan esku hartzen du, bakarrean izan ezik.

Datuok ezagututa hobeto ulertzen da Juan Lopez de Uralde Equo-Podemoseko diputatuak joan den urriaren 19an Espainiako Kongresuko Industria Batzordean esandakoa: Garoñaren baimena berritzeko CSN-n egiten ari den pro-

zedura antzerkitzat jo zuen Espainiako Greenpeaceko zuzendari ohiak. “Haren jabeek ere ez zaie interesatzen berriro irekitzea, beste zentralen bizitza luzatzeko besterik ez dira erabiltzen ari”.

Hain justu, Fernando Marti CSNko presidenteari esan zion hori Lopez de Uraldek, haren agerraldia baliatuta. Martik onartu zuen Nuclenor ez dela betetzen ari zentrala berriz ireki ahal izateko CSNk agindutako hobekuntza plangintza; izan ere, urtebete baino gehiago igaro da hobekuntza horiek ezartzeko epea agortu zenetik. “Hori hala bada, zergatik ez duzue besterik gabe Garoña berriz irekitzeko baimena ukatzen?”, galdetu zion Pedro Azpiazua EAJko parlamentariak Martiri. Hori egitea prebarikatzea izango litzatekeela erantzun zuen CSNko buruak, eta nabarmendu egin zuen bere erakundea teknikoa dela, ez politikoa.

PPk bereganatu du CSNren kontrola

Oso litekeena da Martik hori esan zutenean azken urteetan CSNri egin zaizkion kritika gordinak gogoan eduki izana. Teorian, gainerako erakundeetatik eta bereziki gobernutik erabat independentea da segurtasun nuklearraz ardurtzen den organismoa. 400 teknikari inguru ditu lanean, baina erabaki organo gorenak, Osoko Bilkura, alderdi politikoek Diputatuen Kongresuaren bitartez proposatutako bost kontseilarik osatzen dute. Izan ere, teorian CSNk Kongresuaren aurrean baizik ez du kontu eman beharrik.

Haren independentziari buruzko zalantzak ez dira bart gaueko kontua, baina kritikarik gogorrenak azken urteetan jaso ditu CSNk, batik bat PPK egindako bi jokaldirengatik. Bata Fernando Martiren

beraren izendapena da: Estatuko Energia Idazkaria izan zen CSNko presidente kargua hartzeko bezperara arte, eta literalki ari gara erabiltzen “bezpera” hitza. 2012ko abenduan gertatu zen hori. Izendapena legezkoa izan arren, begien bistakoa da oso zalantzazkoa dela Martiren gobernuarekiko independentzia.

PPren bigarren jokaldia 2015eko urrian iritsi zen. Popularrek, artean zuten gehiengo absolutuari esker, CSNren osaketan tradiziozkoa zen oreka hautsi zuten lehenbiziko aldiz. Zehazki, euren sokako kontseilari bat izendatu zuten (Javier Dies), epea amaituta kargua utzi behar zuen CiUko Antonio Gurguñen orde. Erabakia Gobernuaren dekretu baten bidez gauzatu zen, Kongresuko Industria Batzordeko gehiengoak izendapenaren aurka bozkatu baitzuen. Orduetik PPren hiru kontseilari eta PSOEko bi daude CSN-n, alderdi biek kontseilari kopuru bera izateko ohitura hautsita.

Gero eta gutxiago erregulatzen du erregulatzaileak

Azken hilabeteetan, CSNren independentzia ezbaian jartzen duten etxe

AZAROAREN 16AN, GAROÑA HIZPIDE GASTEIZKO OIHANEDERREN

Garoña behin betiko itxi? Demokrazia energetikoa eta energia sozialak izenburuarekin solasaldia egingo da Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean, azaroaren 16an. ARGIAk bertan paratuko duen Trantsizioak erakusketari lotutako ekitaldia izango da. Parte hartzaileak Aitor Urresti EHUKo irakaslea eta Patxi Alaña Bizkaiko Garoñaren Kontrako Foroko kidea izango dira, eta Unai Brea ARGIAko

kazetaria arituko da moderatzaile lanean. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da solasaldia.

Azaroaren 3tik 24ra izango da Oihanederren *Trantsizioak*. ARGIAren begirada lau hamarkadako eraldaketei (1976-2016) argazki erakusketara. Garoñari buruzkoa ez ezik, hainbat ekitaldi egingo dira hari lotuta. Aldizkari honen 41. orrialdean aurkituko dituzu xehetasunak.

barruko ahotsak nabarmendu dira. 2015ean sortutako CSNko teknikarien elkarte batek (ASTECSN) salaketa larriak egin ditu Fernando Martiren kudeaketaren aurka ASTECSNen esanetan, CSNren funtzio erregulatzailea desitxuratzeko ari da Marti agintean dagoenetik. Besteak beste, segurtasuna neurtzeko prozedurak aldatzea leporatu diote; sistema berriekin, gertakari guztiak behar bezala aztertzea zailagoa dela diote.

ASTECSN kexu da, halaber, lanean urte asko zeramaten goi-mailako teknikariak bota eta haien orde agintari berrien konfiantzakoak ezarri dituztelako. Ordezkatutako bat, hain zuzen, Garoñako zentrala aztertzeke ardura zuena da; 2013an gertatu zen hori. Elkarte barruko iturrien arabera, “ipini dituzten goi-mailako teknikariek, oro har, bat egiten dute oraingo presidentearen irizpideekin; alegia, desarautzearekin”. ■

EZ DA DIRUDIENA

AZALDU ZURE IKUSPUNTUA

CAF ELHUYAR SARIAK 2017

AURTEN SARI BERRI BAT, LEHEN SEKTOREARI LOTUTAKO LANENTZAT

LANAK AURKEZTEKO: cafelhuyarsariak@elhuyar.com
 INFORMAZIOA ETA OINARRIAK: cafelhuyarsariak.elhuyar.eus
 LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA: 2017ko otsailaren 17a

ERRITUAK UGARI AZKEN AGURREAN

Bizi garen artean bezala, hil osterako desio eta erabakietan ere ez gara berdinak. Erritu katolikoaren alternatiba gisa, hileta zibilak hasi dira leku egiten. Erlijio, kultura eta komunitate bakoitzak bere ohiturak ditu eta hainbatek hildakoa jaioterrian ehorztea erabakitzen du. Eta bada hildakoei zerbitzu berezia emateaz arduratzen denik ere, baltsamazio edo tanatopraxia kasu.



Itziar Ugarte Irizar
@itzugarte

Eliza katolikoaren hileta-erritueta-tik irten nahi dutenek gero eta aukera gehiago dituzte horretarako. Aitzitik, gizar-tearen ehuneko zabalena bide hori hautatzen jarraitzen du. Hala baieztatu digu Maria Ascen Garcia de Andoinek, bizitza erdi baino gehiago hildakoekin lanean eman eta gaur egun Bizkaiko ASEF hileta etxeen idazkari eta Espainiako Estatuko PANASEF elkarteko kide denak. Ehorztetxeak sortu zirenetik, halabarrez apurka uneko egoerara egokitzen joan direla dio. Azken urteetan, hileta zibilen agerpenari eta atzerrikik etorritakoen eskariari jarri behar izan diete arreta.

Oraingoz kasu asko izan ez badituzte ere, hileta zibiletarako protokoloa ezarri dutela kontatu digu ASEFeko idazkariak. Ehorztetxe ugari dagoeneko egin duten bezala, ikastaroak prestatzen ari dira, bide zibila hartu nahi dutenei behar bezala erantzuteko. “Izan ditugun kasuetan, ehorztetxean bertan egin izan dira agurrak. Apaiz baten orde, senide edo lagun batek poema edo idatziren bat irakurri izan du. Gero, senideek gorpua erraustea erabakitzen dute gehienetan”, azaldu du.

Atzerrikik iritsitako komunitateak hil osteko errituak ezberdin bizi dituela dio Garcia de Andoinek, eta gizarteko aniztasun kulturala ehorztetxeetako eskarian islaturik ikusten duela. Oro har, gorpua bertan lurperatzeko baino, jatorrizko herrialdera eramateko lana egi-

ten dute ehorztetxeek. Kostua esanguratsua izan ohi da eta ez dago laguntzarik; horregatik, atzerrian lurperatuak izan nahi dutenek sarri aseguru berezia izaten dute azken unerako. “Hildako senidea jatorrizko herrialdera eramateko baliabide ekonomiko nahikorik ez zuen familia baten kasuan, herriko udalak aberriatzea ez baina bertako hilerrian ehorztea ordaintzea erabaki zuen”.

Libre

Gorka Zendoia zumaiarrak bide zibiletik agurtu zuen 41 urteko Igor anaia. “Ikusita gure anaia ez zela katolikoa eta ez zegoela ados Elizaren jarduerarekin, nahiko erraza izan zen hileta zibilaren edo omenaldiaren alde egitea”, azaldu du. Aitaren baserri ondoko txabola jo zuten horretarako leku egokitzat eta lursaila haiena izanda, Zendoiak dio ez zutela inolako eragozpenik sentitu, alderantziz, “libre” sentitu zirela nahi zuten dena aurrera emateko.

Iñaki Olaizola antropologoak ARGIA-ko 2435. zenbakian zioen, alde biografikoa azpimarratzea dela hileta zibilen ezaugarri nabarmenena, Elizaren erri-tualetan maiz falta dena, haren ustetan. Ados dago horrekin Zendoia, anaiaren agurrari emandako “pertsonalizaziotik” oroitzapen polita gordetzen du: “Berak eginiko koadroetako bat jarri genuen bere hautsen ondoan. Lagun bik aurrekua dantzatu zuten eta izekok bertsoak kantatu zituen. Txabolaren aurrean eta

anaiaren errautsen atzean lekua egin genuen hitz egin nahi zuten denentzat eta banan-banan pasatzen joan ziren. Bukaeran Voltaiak jo zuen, bere musika talde kuttunak. Gero errautsak lurperatu eta gainean gorosti bat jarri genuen”.

Herriz herri, gero eta udaletxe gehiagok onartu dituzte hileta zibilak arautzeko udal ordenantzak. Adituek etorkizunean horien aldeko joera nagusituko dela iragarria dute, baina apurka ugari-tuz badoaz ere, minoritarioa da gaurkoz eskaera. Olaizolaren hitzetan, belaunaldi oso bat igaro beharko da hileta erlijio-soen gainbehera nabarmena izateko.

“Hemen, nork jarriko dit kandelarik?”

“Ez dut inoiz txinatar edo marokoar baten hiletarik ikusi herrian”. Ez da arraroa halakorik entzutea, Garcia de Andoinen ustetan. Txinatarren kasuan, hauek artatu dituzten oso ehorztetxe gutxi ezagutzen dituela adierazi du, larriki gaixotu edo zahartzean, sorterrira itzultzeko joera dutelako: “Kulturalki, jaiotako lekura itzuli ohi dira hiltzera. Horregatik ez dugu ezagutzen hemen ehorztetxe txinatarrik eta ez dugu kasik gorpurik bidaltzen Txinara”.

Yuen Tao txinatar gaztea ez dator guztiz bat Garcia de Andoinen hitzekin. “Lehen gehiago uste zen hiltzera sorterrira joan behar zela. Egun, gero eta txinatar gehiagok senidea hemen ehorztea aukeratzen dute, nahiz eta Txinako hileta-ohiturak ezberdinak izan”. Beste



PANATENEASEVENTS.COM

Adituek diote etorkizunean hileta zibilak nagusituko direla (argazkian, hileta zibil bat), baina oraingoz minoritarioa da eskaera eta Eliza katolikoaren errituala aukeratzen dute gehienek, Bizkaiko hileta etxean idazkari Maria Ascen Garcia de Andoinek baieztatu digunez.

faktore bat ere aipatu du Taok: Euskal Herrira txinatar asko gazte iritsi dira eta oro har hiltzeko adinean ez daudenez, ez dira ugariak haien hiletak gurean.

Marta Baya boliviarraren kasuan, Euskal Herrian bizi denetik gertuko inor ez du heriotzak hemen harrapatu. Hala gertatzen denean, ez dauka argi zer egin ohi duten hemen bizi diren boliviarrak, baina ahal duten guztiek gorpua sorterrira eramateko ahalegina egingo dutelakoan da: “Ni bihar hiltzen banaiz, nire herrialdera eraman nazaten nahiko nuke. Hildakoen Egunean hilerrira loreak eta kandelak eramateko ohitura handia daukagu han; eta hemen, nork jarriko dit kandelarik?”.

Hango hil osteko erritua nahiko ezberdina dela gaineratu du; besteak beste, hildakoa haren gustuko musikarekin lagunduta eramaten dute hilerrira eta ehorztetxerik ez dagoenez, gorpua etxean izan ohi dute, azken agurra ematera hurbildu nahi dutenez inguratuta.

Eredu talka

Komunitate musulmanak ere sorterrira eraman ohi du hildakoa, batez ere, erritu islamikoaren arabera ehortzi ahal izateko. Hemen legeak gorpua hilkutxarekin lurperatu beharra exijitzen du, eta horrek talka zuzena egiten du erritu islamikoarekin. Gorpuk Mekara begira, eskuin aldera etzanda eta zapi zurietan batuta ehortzi behar dira, lurrarekin kontaktuan.

Maodo Gueye senegaldarrak argi ikusten du hiltzean sorterrira itzuli beharra. Musulmana da eta kalean denetariko saltzaile ateratzen du bizimodua. Gogoan duen azken senegaldarra hil zenean, gorpua jaioterrira eramatearen kostuari aurre egiteko – 8.000 euro izan ziren– Euskal Herrian bizi diren senegaldar bakoitzak 10-15 euro jarri zituela dio. “Behin Senegalera iritsitakoan hilkutxa kentzen diogu, izara zuri batean bildu eta meskitara eramaten dugu lurperatu aurretik azken

otoitza ematera. Hiru egunen ostean, lagun eta senideak elkartu eta haren omenezko festa txiki bat egiten dugu”, kontatu du.

Hala ere, hainbat arrazoi tarteko, badira gorpua bertan lurperatzeko erraztasunak eskatzen dituzten musulmanak. Eskari horri erantzunez, oraingoz,



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

**Baltsamazio, kontserbazio
eta berreiraketan adituak**

**Beilatoki guztiak, errausketak,
Aseguruekin ere lan egiten dugu**

Munalurra 8, Usurbil (Gipuzkoa)
☎ 943 362 163 / 660 388 652

» **GORKA ZENDOIA, ZUMAIARRA:**

“Hileta zibilean, berak eginiko koadroa jarri genuen hautsen ondoan. Lagun bik aurrekua dantzatu zuten eta izekok bertsoak kantatu zituen. Txabolaren aurrean lekua egin genuen hitz egin nahi zutenentzat”

» **YUEN TAO, TXINATARRA:**

“Lehen gehiago uste zen hiltzera sorterrira joan behar zela. Egun, gero eta txinatar gehiagok senidea hemen ehorzten dute”

Euskal Herrian lur eremu bakarra dago espresuki musulmanak ehorzteko: Derioko hilerriko lur zati bat, 2008tik Udalak Bilboko musulmanei edo bertan hildakoei utzitakoa.

Bizpahiru hilabetez deskonposatzen ez diren gorpua


Victor Gonzalez Usurbilgo Gonzalez ehorztetxeko tanatopraktorea da, Euskal Herri osoan baltsamatze zerbitzua eskaintzen duen ehorztetxe bakarra. Bere esanetan, orain hasi da ehorztetxe mundua apurka ezagutzen benetan baltsamazioa zertan datzan: “Funtsean, baltsamazioak hildakoaren itxura mantentzea du oinarri, haren deskonposaketa atzeratzea. Gorpua bizpahiru hilabetez egon daiteke inolako deskonposizio arazorik gabe, eta hori aurrera-pen handia da gaur egunerako”.

Baltsamazioa orain arte ez zela ondo egiten dio Gonzalezek, hildako pertsonak asko desitxuratzen zituzten substantzia toxikoak erabiltzen zirelako. Tanatopraxian, horren erasokorra ez den prozesu kimiko bat erabilita, zelulen ikuspegitik pertsonak eritasunak

hartu aurretik zuen kolore eta itxura naturala izatea lortzen dute. Kontserbazioa eta baltsamazioa prozesu bera dira, baina lehena gorpua hiruzpaila egun irauteko egiten da, eta baltsamazioa hilabeteetarako. Denbora tarte hori, herrialdearen urruntasunak eta kontsulatuarekin bete beharreko tramineen luzapenak baldintzatzen dute gehienetan.

Izan ere, Euskal Herrian egiten diren baltsamazioen %85-90 inguru gorpua atzerriratu ahal izateko egiten dira. Legeak behartuta, gorpua atzerrirako baltsamatuta joan behar da ezinbestez; baita distantzia laburragoetara hegazkinnez garraiatuko bada eta hil zenetik 72 ordu igaro badira.


Bada beste arrazoi bat senide edo lagunek hildakoaren gorpua baltsamatzea aukeratzeko: publikoki ikusgai jartzea. “Ez ditut izenak eman nahi, baina badira baltsamatu ditugun pertsona ezagunak, gero hainbat lekutan bizpahiru egunez ikusgai jarri direnak. Udaletxeetan edo antzokietan herritarrentzat ikusgai jarri diren aktoreak edo alkate ezagunak, esaterako”.

**Zarautz**


Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)

☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net

**Harrespil**

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)

☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak




HILETA ZERBITZUAK · BEILATOKIA

LEA-ARTIBAI

Artabide 24 · 48700 ONDARROA

☎ 946 166 212 / 946 830 960

659 879 268



» **M. GUEYE, SENEGALDARRA:**
 “Gorpua izara zuri batean bildu eta meskitara eramaten dugu lurperatu aurretik azken otoitza ematera. Hiru egunen ostean, lagun eta senideak elkartu eta festa txiki bat egiten dugu”

» **VICTOR GONZALEZ, TANATOPRAKTOREA:**
 “Bizpahiru egunez udaletxe edo antzokietan herritarrentzat ikusgai jarri dituzten aktore eta alkate ezagunak baltsamatu ditugu”



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Marta Baya boliviarraren hitzetan, “hiltzen naizenean, nire herrialdera eramatea nahiko nuke. Hildakoen Egunean hilerrira loreak eta kandelak eramateko ohitura handia daukagu han; eta hemen, nork jarriko dit kandelarik?”

Aurreko zibilizazioei begiratuta, gorpuak baltsamatzearen ohitura betidanik egon dela azpimarratu du Gonzalezek. Orain gutxi arte, forentseek egin izan dute, baina egun, teknika berritzaileenekin haiek bakarrik egin dezakete, nahiz eta beti forentse baten eskutik joan.

“Honetan lan egiten dugunok dolu prozesuan dauden familiekin harreman etengabea dugu eta heriotza bizitzako beste urrats bat da guretzat. Gizarteak ere horrela onartu beharko luke”, uste du. Heriotzaz hitz egiteak eztabaida sortzen duela dio, eta paradoxikoa bada ere, aldi berean tabua izaten jarraitzen duela. ■



MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu
zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
 Otadui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

BAKEAREN ALDEKO KANPAMENTUAK BI ASTE EGIN DITU BOGOTAN

Bolívar plaza erdian, Bogotako plaza nagusian, Bakearen Aldeko Kanpamentua mantentzen dute hainbat pertsonak urriaren 5etik, plebiszituan ezezekoak irabazi ostean. Ez dituzte hala nolako bizilagunak aukeratu: Kolonbiako Kongresua, Bogotako alkatetza, Justizia Jauregia eta Kolonbiako artzapezpikutzaren egoitzek inguratuta daude. 300 lagun inguru daude egun bertan bilduta.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Lukas Barandiaran San Roman

Bakearen aldeko martxa Bolívarren amaitu ostean, plaza ez zen guztiz hustu, hiru denda bertan geratu ziren. “Lehenengo egunean hamasei pertsona geratu ginen, pare bat ogi eta kafe ontzi batekin, hotzez, logurez eta gosez. Bagenekien hau erokeria zela, baina egin beharra genuen”, azaldu du 37 urteko Argeh Capella kolonbiarrak. Kanpamendua hazten joan da, ordea: 75 denda eta 300 pertsona inguru daude bilduta egun, eta Bogotaz harago zabaldu da. Cartagena eta Monterian –para-militarismoaren sorlekua– ere ezarri dituzte kanpamenduak.

“Ezezekoaren garaipenaren ondoren, plebiszitu osteko aje betean geunden, eta pentsatu genuen: ez, honek ezin du horrela izan”, kontatu du. Buru askotan ibili da ideia bera. Azken urteetan munduan zehar izandako protesta gune askotan bezala, ezin falta kanpatzearen aukera. Capellak, ordea, argudiatzen du ez direla ez M15, ez Occupy Wall Street, ez Gipuzkoa Zutiken oinarritu, Kolonbian bertan izan baitira antzeko esperimentuak. 2013an, esaterako, Gustavo Petro alkate ohi ezkertiarren kargu-betzeagatik protestatzeko, Bakata Bake Herrixka ezarri zuten.

Bertaratuta, deigarria da kanpamendua guztia hesiz inguratuta egotea. Sartzeko identifikazioaren bat eman behar zaie sarrerako segurtasun arduradunei. Neurriok ez dira atseginak askorentzat, baina Bogota ez da hiri samurra eta kontatzen dutenez, birritan sartu dira materiala lapurtzera egunotan. “Hesiak Enrique Peñalosa alkatearen ‘iradokizun atsegina’ izan ziren, baina bestalde, beharrezkoak dira egoeraren kontrola eta ongizatea bermatzeko”, esan du Capellak logistikako karpantik.

Giroak, ordea, ez du zerikusirik hesiekin. Uneoro, plazan jakin-mina dutenak hesietara gerturatzen dira eta bertakoekin hartu emana sortzen da. Michelle Cespedes, esaterako, pasioan zebilen kanpamendura hurbildu eta begiratu bota dionean. Medioetatik baino, bertan eduki du ekimenaren berri: “ondo iruditzen zait egiten ari direna, akordioak gauzatu behar baitira”. Hala ere, bertan geratzeko gonbidapena jasota, aitortu du ez lukeela bat egingo, akordioen arazoei irtenbidea emateko “bestelako bideak hobeak direla” argudiatuta.

Barnean ere giroa oso lagunkoia da, jendeak elkar agurtzen du aspaldiko lagunak bailiran. Helburu bera, bake

nahia, konpartitzen dutenen komunitate txiki bezala definitzen dute beren burua. Elkarbizitza esperimendu bat, “jendeari hausnarrarazten dion berdintasun ariketa”, zehaztu du Capellak. Esperimendua kudeatzeko, logistika komiteaz gain, komunikazio, hezkuntza, osasun eta segurtasun komiteak daude, boluntarioz osatuta. Horrez gain, gaueko asanblada orokorra egiten dute kontsentsuak lortzeko.

Bogotako klimatik babesteko –2.600 metrotara eguraldiak ez du barkatzen– estalkia eraikitzen ari direla, Eduardo Henaok azaltzen du bere ilobak deituta –horregatik “Osaba Montxo” ezizena jaso du– heldu zela horra: “Interesgarriena jendearen emozioa izan zen, elkar besarkatzen genuen, negar egin genuen, baina ez genekien zergatik. Bakea eskura eduki eta ihes egiteak sentimendu asko sorrarazi zizkigun”. Kanpamendua gidatzen duten printzipioez galdetuta, “senidetasuna, elkartasuna, maitasuna eta elkarrekiko estimua”, erantzun du Andresek. Hala ere, elkarbizitzaren ondorioz sortutako arazoak ez dira falta.

Beren burua gizarte zibileko norbaiten bilkuratzat dute. Bertan ez dute



onartzen ez alderdi politiko ez herri antolakunderik, ez inolako adierazpen politiko alderdikoirik. Aktore politiko independente gisa definitzen dute beren burua.

Abenturari amaiera jarri behar zaiola dio alkateak

Bizilagunekin harreman ona dutela dio logistikako "jauntxoak". Badakite gobernuaren sinpatia dutela, finean, azken helburu bera dutelako. Eta beste hainbeste gertatzen da FARC-EPrekin eta bestelako herri mugimenduekin. Ez da horrela, ordea, Peñalosa alkatearekin. Hasieran, eta baldintza zehatz batzuekin, bertan geratzeko baimena eman badie ere, egunak igaro ahala geroz eta ezkorrago dago. Bizilagunen "kexak" jaso omen dituela, eta hiriko gune turistikoetako baten erdian daudela argudiatuz, "abenturari" amaiera data jarri behar zaiola errepikatzen du.

Baina kanpamentuak ongi zehaztuta du zein den bere nahia. Baldintza zehatzak ezarri dituzte amaiera emateko: akordio konkretu, egiaztagarri eta gauzagarria lortzea eta bi aldeko su-etena mugagabea izatea –egun urtarilaren 1era bitartekoa da–.

Helburu horrekin, beren funtzioa presio egitea da. "Arazoa ez da Santos presidentea, arazoa ez da FARC ez ELN, horiek bakearen aldeko apostua egin dutelako. Arazoa ezezkoaren aldeko oposizioak dira, prozesua luzatu eta luzatu besterik ez dute egin nahi, 2018ko hauteskunde presidentzialetan boterea lortzeko. Gure presioa jende horrenganako doa, gobernuarenganako baino", azaldu du Capellak.

Hala ere, beren jarrera ez da ezezkoaren jarraitzaileen kontrakoa, kanpamentuak elkarriketa gunea dela defendatzen dute. Datorren urriaren 29an ezezkoaren aldekoen martxa plazan bertan amaituko da, eta bakearen martxekin egin duten antzera, kanpamentuan ongi-etorria egitea aurreikusi dute.

Izan ere, aniztasuna kanpamentuaren ikurtzat dute. Kanpamentu honetan ez da ikusten gazteen gehiengorik, orotariko adinekoak dira bertan daudenak. Eta ez hori bakarrik, Bogota eta inguruko herrietako lagunez gain, bada 16 ordu gidatu duenik bertaratzeko. Hala azaldu du Jessenia Delgadok, Kolonbia ipar-ekialdean dagoen Cucutatik etorri diren hamar pertsonetako batek: "Habanako bake akordioak babestu eta gau-

zatu nahi ditugu, gure ingurunea gerrak kolpatuenetariko bat izan baita. Telebista bidez eduki genuen kanpamentuaren berri, eta jarduera ugari egin genituen dirua bildu eta etortzeko".

Kolonbiatik harago, munduko hainbat zokotako jendea bildu da hemen, eta noski, ez da falta euskaldunik horien artean. Maitane Egido 20 urteko ermurrak bertan igaro ditu azken egunak. "Facebook bidez izan nuen kanpamentuaren berri, bertaratu eta asko gustatu zitzaidan, batez ere, hemen harreman autonomo eta horizontalak sortzen ditugulako". Euskal Herrirako ikasgairik atera duen galdetuta, gehiago hitz egin behar dugula dio: "Nik uste dut Euskal Herrian oso itxiak garela, eta askotan besteen ikuspuntua kontuan hartu eta bertatik eraikitzea falta zaigu".

Ez dute erronka samurra, herrialdearen etorkizuna jokoan baitago erraldi politikoen arteko lehian. Dena den, Carmen Vargas gatazkaren biktimak berretsi duen antzera, "Askok ikasi dugu bertan, bakoitza bere lekutik abiatzen bada ere, denok helburu bera baitugu: bakea. Laguntza handia eman digute, eta hemen geratuko gara garaipena lortu arte". ■

HAUR EUSKALDUNAK ETA BEARNESAK IKASTETXE BEREAN

2017ko irailean euskarak eta bearnesak ikastetxe bakarrean leku har lezakete Bokale herrian. Seaska eta Calandreta ikastetxeen federazioak elkarren eskutik ari dira egitasmoan. Ikasle berrien hainbat gurasok ere lanean dihardute. Seaskako Paxkal Indo eta Calandretako Midou Curmer presidentekin, hala nola Bokalen bizi den Mailiz Hiriart guraso eta sustatzailearekin mintzatu gara proiektu berriaz.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Calandreta eta Seaska federazioak Frantzia Estatuko bi hizkuntz gutxiagoturen adierazleak dira. Irakaskuntza da euren arloa. Lehena, bearnesez –okzitanieraren aldaera bat– garatzen da. Bearnesa gaskoien mintzoa da, gaskoia ere deitua. Euskal Herriko laugarren mintzaira da, datu hori ezezaguna bada ere. Antzina, Ipar Euskal Herriko herri mugakide anitzetan mintzatu da gaskoia, baina gaur egun galbidean dago. Gaskoiak eta baskoiak anaia-arreba gisara agertu dira historiaren bilakabidean. Alabaina, Mixel Labéguerieren 1963ko *Gazteri berria* kantak “Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia” dio. Hots, elkarrekiko etsaituak ere izan dira. Gaur egunera etorritak, aldiz, euskarak eta gaskoiak ikastetxe bakarrean leku har lezakete Lapurdiko Bokale herrian.

Proiektu historikoa eta berria

Baiona hiriburua onduko herri honetan proiektu historiko bat gauzatze bidean dago. 8.000 biztanle inguru du Bokale. Ipar Euskal Herrian 5.000 biztanletik gorako herri guztietan ikastola dago. Egitasmoa duela hiru urte sortu zen: “Bertan ez dugu ikastolarik, baina Bokale-Tarnosetik 30 ikasle inguru (15 familietakoak) datoz Angelu, Baiona edo Miarrizteko ikastoletara egunero”, erran digu Seaskako presidente Paxkal Indok. Aski urrun bizi badira ere, Aturri ibaiaz bestaldeko hainbat familiek ikastoletara eramaten dituzte beren seme-alabak. Hartara, Seaskako bulegoak,

tokiko hainbat familiaren nahikariak bultzaturik, ikastola bertan antolatzeko beharra ikusi du: “Bokale ez dela euskalduna, gaskoia dela diote zenbaitek. Nik neuk hori aintzat hartzen dut, baina ez lurraldea historia bezala ulerturik. Niretzat lurraldea iragana den gisan, geroa ere bada. Guk erabakitzen dugu geroa nola egin”, gehitu du Paxkal Indok.

Edonola ere, ez da bearnesen artean eraikitzen den lehen ikastola. Orain hogeitaz Seaskako ikastolak izan ziren Paue hirian eta Oloroe-Donamaria herrian. Euskaldunen eta biarnesen arteko harremana iraganean ere izan da, beraz. Pirinio Atlantikoak Departamenduko Calandretako presidente Midou Curmer honela mintzatu zaigu proiektuaz: “Lehenik eta behin, eskola eraikitzeak munduari buruzko ikuspegi eta gogoea bateratua lantzen lagundu dezake. Euskaldunon eta bearnesen artean ez dago areriotasunik, ez dago batzuetan zabaldu nahi izan den elkarrekiko ikusiezina. Areago, kontua ez da, euskalduna edo bearnesa izan, bakoitzak zer egiten duen ikustea, besteak egiten duena ikustea baizik. Ekimen honek jendearen arreata bereganatuko du, ziur”.

Bokale Euskal Herriko udalerrria da, baina ez dago Bearnerekiko mugan; Landak departamenduarekin mugakidea da, Bearnotik urrun samar. Landetan ez dago Calandretako eskolarik. Calandreta hurbilena Orthezen dago: “Urrun egoteak zailtasunak ekar ditzake, baina ez da oztopo bat. Bokalen badago

sentimendu indartsua gaskoi kulturaren alde”, erran digu Midou Curmerrek.

ACI Gasconha da gaskoi kulturaren alde ari den liga edo elkarte. Honela idatzia ageri da bere webgunean: “*Ligam gascon Baish Ador Baiona Anglet Biàrritz Bocau*”. (Baiona-Angelu-Miarrizte-Bokale-Aturri gaskoi elkarte).

Calandretako presidentearen hitzetan, ACI Gasconha elkarteak Calandreta/Seaska eskola sortzearen alde dago: “Bokale gaskoia da, baina populazioa euskalduna da batez ere. Horrek bi eskolak eraikitzea eskatzen du, eta elkarrekin eraikitzen badugu hainbat hobe. Badago nahikaria. Auzapeza eta Herriko Batzarra ados daude proiektuarekin, bertako herritarrak batez ere euskaldunak sentitzen direla ohartu dira”.

Seaskak Bokaleko hainbat herritarren nahia bideratzen lagundu nahi du, eta hartara, proiektu pedagogikoa Calandreta federazioarekin lantzea erabaki du. Calandreta eskolak Pirinio Atlantikoetan, baita Okzitania osoan ere zabaldua daude. Aspaldi ari dira eurekin elkarlanean. Hogeitaz urte dira, Calandreta eta Seaska federazioek formakuntza zentro bateratua eratu zutela. Ez dira Frantziako beste eskolekin dituen harreman bakarrak: Kataluniako La Bressola, Britainiako Diwan, Alsaziako Abcm-zweispachigkeitekin ere elkarrekin partekatzen dituzte beharri-zanak. Federazio horiek guztiek Estatuarekin dituzten lan kontratuen izaera ezagutzen dute, besteak beste.



Hendaia Gure Ikastolako ikasleak.

Gurasoen dinamika baitezpadakoa

Mailiz Hiriart Seaskako gurasoa da. Ortzaitzekoa da jatorriz, Nafarroa Beherekoa: “Lana dela eta, heldu ginen kostaldera. Bokalera bizitzera joan gara gero, Baionan etxebizitzaren egoera zaila zelako. Egia erran, dolu batean joan ginen, baina, zinez ustekabe goxoa izan dugu, elkartasuna sentitzen dugu. Herria maitatzen ikasi dugu, popularra da, badira kolektibo anitz, xumeak. Auzo batean bizi gara, langile jendea da”.

Hiriartek erran digunez, Bokalen poliki entzuten da euskara. Gaskoia ere bai, baina euskara baino gutxiago. Jende anitz gaskoia edota okzitaniarra sentitzen da, baina hizkuntza ez da entzuten: “Toki-koek ez dute euskara arrotz gisa hartzen, badira euskaldun franko Bolaken. Elizaren inguruan bereziki. Gure helburueta-ko bat da zaharren harrotasuna piztea, bi kulturek jasan duten zapalkuntza azaleraraztea. Iraganeko eta egungo belaunaldiak lotu nahi ditugu kulturalki”.

2017ko ikasturtean abian nahi dute Seaska eta Calandretaren arteko ikastetxea, 2 eta 4 urte arteko Ama eskola zabalduz lehenik: “Behar dugu eta egingarria da”, erran digute Seaskako bi partaideek. Irakaskuntzan ari diren bi federazioen arteko elkarteak eratuta dago eta hasi dira proiektuaz gogotatzen. Hainbat bilera eta ekitaldi publiko egin dituzte dagoeneko. Bokalen

» MARILIZ HIRIART:

“Bokalen poliki entzuten da euskara. Gaskoia ere bai, baina euskara baino gutxiago”

urtero egiten den Herrien eta Kulturaren Jaialdiaren kariatara aurkeztu dute proiektua, aurtengoa V. edizioa izan da, urriaren 5ean. Heldu den abenduan, berriaz, Nadau musika talde okzitaniarra eta Benito Lertxundi bildu nahi dituzte kantaldi berezi batean Bokalen.

Seaskak 3.600 ikasleen egitura kudeatzen du egun. Hazkunde Ministerioarekin ari da administrazioarekiko lanean jada. Solaskideek diotenez, “eskola eraikitzeko gurasoen dinamika behar da, ezin da pentsatu gurasoen nahikaririk gabe deus egitea. Sei familia lanean ari gara baina ez dira baitezpada familia horiek euren seme-alabak eskolara eramanez dituztenak, izan daitezke horiek edota beste batzuk ere”. Une honetan, Bokaleko ikastetxe berria eraiki nahi duten familia hauek laguntzea helburu du Seaskako bulegoak. Calandretaren al-

detik badago familia bat interesatua eta beste batzuk batzea espero dute bidez bide. Paxkal Indok dioenez, “askatasunean utzi behar dira gurasoak eta herri-tarrak orobat, batzuk hurbilduko dira eta beste batzuk ez, energia horiek ezin dira bortzaz kanalizatu, aske utzi behar dira”.

Nolanahi den ere, jende askoren aburuz, euskaldunen borrokarik gabe gaurko proiektua ez litzateke eginbidean izango, ezta, konparazioerako, Baionako bide eta hiri seinaleak hiru hizkuntzetan –frantsesez, euskaraz eta gaskoiez– idatzita egongo ere: “Ni erabat ados aburu horrekin. Zenbaitetan, hainbatek gaskoia erabili du gure kontra egiteko. Halaber, gaskoi zenbaitek ‘euskaldunek baduzue dena eta guk deus ez’ aurpegiratu digute. Guk ‘ez da egia. Gurekin borrokatu, goazen elkarrekin’ erraten diegu. Horietako askok ‘Gu ez gara euskaldunak, gaskoiak gara’ diote. Ongi da, izan gaskoi, gu euskaldun garen bezala”.

Funtsean bi hizkuntzek arazo berak dituzte, hizkuntzek legearen aldetik jasotzen dituzten erasoak berdinak dira, legearen babes eskasa dela eta. Bi hizkuntzek beren hezkuntza proiektuak normalizatuak izatea dute xede. Midou Curmerrek honela erran digu azkenik: “Proiektuak benetako funtsa dauka. Jendeari esan behar zaio, proiektu hau haurrak hezteko eskola dela, hizkuntza gutxituetan ere hezi daitekeela”. ■

ARTXANDAKO JOLAS PARKEARI AGUR BETIKO



TESTUA ETA ARGAZKIAK

Sergio Monedero (Suhigarai)

100.000 m² ordainpeko aisiari eskainitako mundurik dibertigarriena zen, iragarleen esanetan, adin guztietakoentzat pentsatua eta egun osoa han pasatzeko diseinatua. Garaiko 551 milioi pezeta balio izan zuen eta 130 laguni lana ematen zion.

Dena den, hastapenetik bisita kopurua estimatua baino askoz baxuagoa izan zen; eguraldi bereziak, kokapenak, sarbideak eta sarreraren prezioek zer esan handia izan zuten horretan.

1974. urtean ireki zuen Bizkaiko Foru Aldundiak Artxandako Jolas Parkea. Garai hartan Europako parkerik modernoena omen zen, inoiz ikusi gabeko atrakzioak ei zituen. Hasiera oso arrakastatsua izan zen eta urtero atrakzio berriren bat inauguratzen zuten, adibidez, lehena zoologikoa izan zen 1975ean.

1985etik aurrera bisitarien jaitziera geldieztina izan zen, 1990ean parkeak azken hatsa bota zuen arte, behin betiko itxiz.

Ordutik hona parkea biltegi gisa erabili da, baina denborak, klimatologiak eta naturak elkartuta desagerrarazten joan da. Hasierako parke hartatik uhar-te txiki bat besterik ez da geratzen.

Aurten jakinarazi du Bizkaiko Foru Aldundiak Parkea eraisten hasiko dela. Beraz, agur betiko. ■







EUSKAL PEZETA ISOLATUAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga


@irazustabarrena

Bilbo, 1936ko urria. Jose Antonio Agirre lehendakari izendatu eta bi astera, Eliodoro de la Torre buru zuen Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak dekretu bat onartu zuen, abuztuan Bizkaiko Defentsa Batzordeak onartutako bera: billete-txeketegiak jaulkitzeko agindua eman zuten, Espainiako bankuan zituzten funtsen babesean.

Diruaren zirkulazioa bermatu nahi zuten, gerra eremuetan ohikoa denez dirua altxortzeko joera baitzegoen.

Honela zioen dekretuaren zati batek: "Beraz, altxortzea ezinbestean zuzendu behar da konponbide heroikoen bidez, batetik, egoismo nabarmen eta zentzugabeenaren ezkutalekuetan kapitala metatu dadin saihesteko eta, bestetik, gure herriko altxor emankorrak lurraldeko mugetatik ihes egin ez dezan, beste eskualde batzuk gure lurralde zuku finantzarioaren bizkar elikatzeke".

EAJko eta Frente Popularreko ordezkariak osatutako gobernuak halaberrez eskuratu zuen Espainiako Errepublikak aurrez ukatutako autogobernu maila. Autonomia estatutua 1936ko urrian bertan onartzea lortu zuen; gerra hasita, gobernu zentral errepublikanoak euskal lurraldeen babesa bermatu nahi zuen. Gipuzkoatik Asturiasera bitartean, kostaldeko lerroa errepublikarren esku zegoen oraindik, baina beraien eremu nagusitik erabat



1937an Eusko Jaurlaritzaren aginduz egindako 50 pezetako billetea, atzealdean arrantzaleak portuan dituen. 25 pezetako billeteak, adibidez, labe garaiak irudikatzen zituen.

isolatuta. Eta 1937ko martxoa arte, frankistek erasoari berrekin arte, fronte egonkortuta egon zen. Egoera aproposa Jaurlaritzak jarduera laburra baina bizia izan zezan. Esku-dirua jaulkitzeaz gain, pasaporteak banatu zituen, justizia sistema berrantolatu zuen, atzerrian ordezkariak jarri zituen abian, 40.000 soldaduko armada antolatu zuen...

Bederatzi banketxe eta kutzak jaulkitako hasierako txeketegi-billeteak kalitate eskasekoak ziren eta 1937ko api-

rileko dekretu batek aginduta, billete berriak egin ziren, atzealdean euskal eszena tipikoak (eta topikoak) zituztenak, baita kalitate handiko nikelzko bat eta bi pezetako txanponak ere.

Bilbo ekainean erori zen, eta hiriarekin batera, lehen Jaurlaritzaren lorpen gehienak. Baina gorde diren "euskal" billete batzuk zein higatuta dauden ikusita, bi hilabete eskas horietan behintzat beren funtzioa bete zutela eta zirkulazio bizian egon zirela esan daiteke. ■



1929ko krakeko mito bat leihotik behera

1929ko urriaren 24an burtsak Wall Streeten lurra jo zuenean, inbertitzaile mordo batek beren burua etxe-orratzetako leihoetatik bota eta, literalki, lurra jo zuten haiek ere. Hori da, behintzat, gugana iritsi den irudia, plutokratak euri tantak bailiran erortzen zirela zerutik eta espaloiak gorpu trajedunez josita zeudela. Baina datuek diote suizi-

dio-tasak ez zuela nabarmen gora egin gainbeheraren ondorioz eta egun haietan Manhattanen bi pertsonak soilik egin zutela beren buruaz beste leihotik behera kalera jauzi eginda: Hulda Borowski bulegariak eta G.E. Cutler enpresariak, eta ez heriotza batek ez besteak ez omen zuten lotura zuzenik izan finantza-porrotarekin. ■

Gasak behera, gorputzak gora



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Lekale guztiak ez dira eltzean egosi eta gozatuko. Egoskari ezagunez gain, beste erabilera ugari duten lekaleak badira. Sukaldetik igarotzen diren beste batzuk eltzean egosi beharrik gabe aho-ratzen ditugu: baba (*Vicia faba*), ilarra (*Pisum sativum*) eta leka (*Phaseolus vulgaris*); horiek, berdetan jaten direnez, barazkitzat jotzen dira. Beste batzuk oliotarako edo saltsetarako erabiliko dira: kakahuetea (*Arachis hypogaea*), soja (*Glycine max*)... Badira hazitarako soilik erabiltzen diren lekaleak ere: hirus-tak (*Trifolium spp*), alpapa edo luzerna (*Medicago sativa*), pagotxa (*Trifolium incarnatum*), ailorbea (*Trigonella foenum-graecum*), zalkea (*Vicia sativa*)... Hazia ez dugu, era batera edo bestera, elikadurarako bideratzen; erein eta sortzen duen landarea bai, ordea. Zuzenagoa litzateke horiei lekaziak deitzea. Banaketa hori geure kulturen ulertzen da. Beste zenbait tokitan, adibidez, ilarrak lehorrak eta egosita jaten dira; han lekalea izango da ilarra.

Lekaleak, lekaziak, egoskariak, eltze-kariak... Balio handiko gaiak sortzen dira landare lekadunengandik. Orain arte aipatutakoak zuzenean dastatzen



LAMIOT-CC BY SA

Badira hazitarako soilik erabiltzen diren lekaleak; pagotxa (*Trifolium incarnatum*), esaterako.

ditugu: baba gozoa, lapikoko babarruna, kakahuete frijitua, soja saltsa eta pagotxa edo ailorbea jenez guri-guri egin den idiskoaren zankarra gure ahosabaiak gozo hartuko ditu.

Ahosabaiaren molde kultural soiletik igaro beharrik gabe ere, gozatuko ditugun beste onurak ere badakartzate lekadunek. Lurra ongarritzea, adibidez. Landare lekadunek bakterio nitrofiloak hartzen dituzte apopilo sustraietan. Horien nitrogenozaletasunak aireko nitrogenoa hartu eta sustraien ingurura ekartzea dakar. Zenbait lekadunek fos-

foroa ere mugitzen omen dute lur-rean. Landareak berak ederki baliatuko ditu jakiok, baina geroko geratzeko adina ere izango da. Ondoren datorren landarearentzat pagotxa. Horrek ongarririk kimiko kutsatzaileen erabilera murrizten du. Zuzenean kutsadura gutxituko da, eta, zeharka, ongarririk horiek egiteko bidean sortzen diren beste kutsadurak eta berotegi efektua sortzen duten gasen isurketa apaltzen da.

Klima aldaketa dakarren berotegi efektua goibeheratzeko lekaleak jan: gasak behera putzak gora! ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba! Baratzean ahabia eta masusta gorria sartze-kotan nabil eta aldatzeko garairik egokiena zein den jakin nahi nuke. Negu aldean, entzun dut...

Igone Campos (Zumarraga)

Kaixo Igone. Pentsatzen dut masusta gorria mugurdiari (*Rubus idaeus*) deituko diozula. Masusta izenarekin ikaragarritzko zikulu-saltsa sortu dugu, eta ez dakigu oso ondo zein fruituz ari garen, laharrarena (*Rubus fruticosus*), marugatzearena (*Morus spp*) edo mugurdia.

Ahabiak (*Vaccinium myrtillus*) eta masusta gorriak, biek hostajea galtzen dute neguan. Horixe duzu aldaketa egiteko sasoi onena. Udazkenaren amaiera eta neguaren hasiera. Ahal izanez gero ilbeherako eguna aukeratu. Garrantzitsuena izotz beldurrik ez den egunen batean egitea da. Aldaketa egindakoan sustraiak harrotutako lur artean geratzeko dira eta izotz gogor samarra eginez gero barruraino sartu eta sustraiak kaltetzeko arriskua dago. Aldaketa egiterakoan landarearen inguruko lurra ondo zanpatu, betiere.

ANTTON OLARIAGA ARANBURU, ALTZA PORRUZ

"Marrazkilariok ere baratzikolak gara"



Garazi Zabaleta

@tirikitrann

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Zer-nolako esperientzia izan da *Altza Porruk*oa?

Bizi Baratzea liburua askotan kontsultatu behar izan duzu marrazten hasi aurretik?

Esperientzia ederra! Nik baratzean, egia esan, esperientzia zero. Edo are gehiago, zero negatibo! Baina asko ikasi dut. Baratzeak erakutsi dit lurra landu behar dela lanean hasi baino lehen, eta guk ere gauza bera egin beharra dugu: ingurua pixka bat prestatu marrazten hasi baino lehen. Eta gero, pazientzia! Itxoiten jakin behar... Guk marrazki edo komiki bat egiten dugunean, tiraderan sartzen dugu. Handik bi egunetara tiradera ireki eta orduan ikusten dugu emaitza nolakoa den, ze akats dituen. Beraz, zentzu horretan gu ere baratzikolak gara.

Terabakterioa, eremu hidroponikoa, galipot biodegradagarria, Trans-Risotto... Baratzetzaleentzat baino, ez da ba goi-mailako zientzialarientzako komikia izanen zurea?

Adi! Etiketak irakurri egin behar dira. Nahitaezkoka da irakurtzen jakitea. Hor, zerrenda horretan falta da, arriskutsuena eta Jakobian eraikinean gaueko auskalo zein ordutan erabiltzen dena: Salda bordelesa. Jakobak asko erabiltzen duen hitza da, eta bere puntuan mane-jatzen duela uste dut. Agian, hortik datorkio bere etorria...

Satorrei hitza eman diezu istorioan. Baratzeko animalia guztien artean, zergatik satorrei?

Jakoba astero sator lanetan nola ibiltzen den jakinda, ezinbestekoa zen bere satorkeriei sator batek ematea erantzuna.



Bere aurka-ko mendekua irudikatu duzu kontakizunean. Hain gaizki moldatzen al zara Jakobarekin?

Ez, ez. Badago esaldi oso famatu bat: "Hurbil higandik, lagunak.

Hurbilago oraindik, etsaiak". Ba horixe...

Badaukazu izan duzu noizbait? Ba al zegoen satorrik han?

Sekula ez dut baratzerik izan, baina nire buruan zulo ugari bai... hor bilatu behar satorrak!

Euskal komikigintzako aitzindarietakoa, argitalpen askotan hartu duzu parte. Baratzeari buruzko lehena izan al da zuretzat?

Noizbait testu liburuetarako edo kantuentzat ilustrazioak egin izan ditut baratzeari lotuta, baina komiki forman lehena *Altza Porruk*oa. Eta benetan plazera izan da! Marrazkilarioi oinak jarri (bertsolaritzan bezala) eta guk erantzun grafiko bat ematearen ariketa, adibidez, oso polita iruditu zait.

*Altza Porru*ren aurkezpenean erremolatxa aurpegia jarri dizute. Zergatik ote?

Hori sekretupean gorde dute, ez didate esan zergatik. Baina noski, *Bizi Baratzea* liburura jota, erremolatxaren sailleko *Nor norekin?* atalean esaten du: "Lagun onak ditu aza jendea eta familiakoak". Azaburu deitzeko modu oso fin bat da, beraz! Baina beno, ni harro erremolatxa izateaz... ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura

iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Urriak 28: Basauri

9:30etan, Ibaigane Kultur Etxean.

Urriak 29: Elizondo

Jakoba Errekondoren kontsultategia, egun osoan zehar.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

Euskararen kate hautsiak liburua

4

Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria

Euskararen kate hautsiak du izena Dabid Anautek 2013an aurkeztutako liburu mardulak. Euskal Memoria fundazioak argitaratu zuen lana, euskarak mendez mende jasan duen zapalkuntzaren bilduma. Errepresio bide anitz erabili da historian zehar euskara azpiratzeko, hiztunek hizkuntzari izkina egitea lortzeko, euskaldunak mutu uzteko. Kolore askotako zapalketak ageri dira liburuan; zigor gogorrekoak, mehatxuzkoak, eta ez beti hain bortitz eta nabarmen, ezariezarian aritu dira sarri, higaketan. Anautek,

bilketa lan handian, ez ditu zapalkuntzaren lekukoak eta estrategiak soilik kontatzen, herritarrek haiei aurre nola egin dieten ere azaltzen du. Errepresioa jasan zuten hainbat euskaldunen lekukotasunak eta adituei egindako elkarrizketak ere jasotzen dira. Gertatutakoa ez errepikatzeko eta ez ahazteko argitaratu zuen Euskal Memoria fundazioak lan hau, ez da kasualitatea liburuaren izenburupekoa: *Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Urriko zozketan bi ale zozketatuko ditugu parte hartzaileen artean.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOA

Ametzagaña, 19 - behea · 20012 DONOSTIA

☎ 943 244 584 / 688 693 776 · www.euskalmemoria.eus

www.facebook.com/euskal.memoriafundazioa/ / @EuskalMemoria

#oroimenhistorikoa
#egia
#justizia
#erreparazioa

Hilabeteko honetako sariak

1



Arizmendi Ikastolaren
Konfiantzaren Pedagogia liburua
4 liburu

2



Bilgune Feministak argitaratutako
Izena eta izana ezbaian
4 gida

3



EHNEk argitaratutako
Ardatza aldizkaria
4 harpidetza

4



Euskal Memoria Fundazioaren
Euskararen kate hautsiak
2 liburu

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Azaroa ARGIA izango da aurten Gasteizen



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Trantsizioak erakusketa Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean egongo da ikusgai azaroan. Bere ibilbidetxoa egiten ari da; Gasteizera eraman aurretik Ondarroako Argia Egunean izan genuen eta Lasarten, Hernanin, Oñatin... ere egon da. Baina behin Gasteizerraino eramanda zergatik erakusketan bakarrik geratu? Gasteizko egoera soziolinguistikoa asko aldatu da azken urteetan, eta herri mugimendu aldetik ere oso aktibo dagoen herria izanik, erakusketan ikusarazi nahi denaren bidetik hainbat ekitaldi antolatuta ditugu. Gehiago jakin nahi?

Azaroaren 3tik 24ra egongo da ikusgai lau hamarkadetako eraldaketei begira jartzen gaituen erakusketa. Eta bitarte horretan, Oihanederrekin eta *Alea* komunikazio proiektuarekin elkarlanean beste hainbat ekitaldi antolatzeko beta hartu dugu. Azaroaren 3an bertan, erakusketaren irekieran, bisita gidatua egingo da. Dauden argazkiek 1976-2016 urteen arteko Euskal Herriko gertae-rak kontatzen dituzte, baina Gasteizko hiru lagunek bertako historia kontatuko digute, biak konbinatzeko. Hizlariak

izango dira: Amelia Barquín, Estitxu Villamor eta Bego Oleaga Erdoiza.

SolasALEAn elkarriketa saioak egiten dituzte hilero Oihanederren, eta azaroaren 11koa *Alea* eta ARGIAk elkarlanean antolatuko dute. Jone Goirizelaia izango da gonbidatua, eta Mikel Asurmendi (ARGIA) eta Edurne Begiristain (*Alea*) elkarriketatzaileak. Publikoak ere galderak egiteko aukera izaten du saio hauetan.

Garofñarentzat erabakigarriak diren asteotan, gaiaren inguruko hitzaldia dinamizatuko du Unai Break (zenbaki honetan bertan erreportajearen Garofñaren gaia sakon azaltzen digunak) eta hizlari ariko dira Aitor Urresti (EHUko irakaslea) eta Patxi Alaña (Garofñaren kontrako foroa). *Garofña behin betiko itxi?* Izango du izenburu eta azaroaren 16an egingo da.

Eta errematatzeko *Ziztadak*, desobediencia zibilari buruzko dokumentala ikusi eta Zigor Olabarriarekin (Lurralde Askea) eta Saioa Iraolarekin (Bilgune Feminista) solasaldia egingo da. azaroaren 22an, 19:00etan Oihanederren. ■

Sarean arrantzatua

Eñaut Beloki

@ebeloki

Etxean gaixo egoteak badu zeozer ona. Postariak tinbrea jo ta buzoian uzten dizu @argia #astekarialetuzsendatzengara



Digitario, Euskarazko Komunikazioaren Nazioarteko II. Biltzarra

Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta, mahai-inguru eta hitzaldi sorta zabala egin zen Leioan, urriaren 20tik 22ra. Beste hedabideetako langileekin esperientzia trukea egiteko eta irakaskuntza munduko ikuspegia jasotzeko aukera izan genuelako, oso eskertuta itzuli ginen.



Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak:

Bidali harpidetza@argia.eus-era alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta merezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

HERRI BATEN ZAURI AK
OHOLTZARA

Euskal antzerkizaleak zorioneko gaude: beste behin elkartu dira Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki taldeak, Euskal Herri osoan barrena erakutsiko duten antzezlanaren sortzeko. Francoren garaitik gaur eguneraino iritsi zaizkigun zauri eta zamak eraman dituzte oholtzara, frankismoak izan ez zuen auzia auzi kolektibo bihurtu eta gaur egunera ekarriz. *Francoren bilobari gutuna* du izena, eta urriaren 31n estreinatuko dute.



Lander Arretxea Berezartua

@larretxea

ARGAZKIA: ARTEDRAMA

“Franco ez zait batere interesatzen. Tipo horrek ez du antzezlanik merezi”. Hala dio Ximun Fuchs zuzendariak urriaren azken egunetan lehenengoz plazaratuko duten lanaz galdetuta. Zergatik orduan, *Francoren bilobari gutuna*?

Gunther Anders filosofo juduak esku-titz bat idatzi zion nazien sarraskiaren arduradun izateagatik heriotzara kondenatutako Adolf Eichmannen semeari, nazismoaren kontrako borrokara batzeko gonbita eginez. Fuchsek Alemaniako kontzentrazio esparruetan zein frankismoak ezarritakoetan izandako senideak ditu, eta ezinbestean jotzen du konparaketara: “Frankismoa aldiz, ez da sekula epaitu, ez da egin frankismoaren auzirik, eta beraz, ezin dugu gutun hori idatzi”.

Antzerkia ere izan daiteke auzi mota bat ordea: trauma eta arazoa plazaratzeko modu bat. Gaiari heltzeko baina, ez dute iraganean kokatutako antzezlanaren egin: “Gureari eta orainari begira jarri gara, senideengandik gureganatu dugun horri, iragana eta etorkizuna ere kontuan hartuz”. Frankismoak eta geroztik jazo den guztiak gure bizkarrean jarritako zamari hitzak eta aurpegiak jarri

nahi izan dizkiote, gaur egungo ospitale bateko gorabeherak abiapuntu hartuta. “Ospitalea, gure herriaren metafora izan ahal da: bertan sortzen da, hiltzen da, maitatzen da, bizitzen da, lan egiten da, gaixotasun asko artatzen dira... Jendarteko esparru gehienetan ez gara belaunaldi guztietako pertsonak nahasten; ospitale batean bai”, dio zuzendariak.

Memoria bezain dinamikoa

Denera zazpi dira antzezlanean parte hartzen duten aktoreak: Pako Revueltas, Erika Olaizola, Patricia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko Redondo eta Ander Lipus. Haietako bakoitza pertsonaia bat baino gehiagoren azalean jartzen da ordea. Ospitaleko pisu batetik bestera, eszenario eta arropa aldaketa azkarrekin, antzezlan zinez dinamikoa da osatu dutena. Hala azaltzen du zuzendariak: “Antzerkian memoria oso presente dago, baina ez memoria historikoa, herrikoia baizik, etxeetan transmititzen dena. Kontraesanek eta nahastez josia dago memoria hori, anitza da, eta nire nahia izan da memoria dinamiko eta plastiko hori oholtzara eramatea antzezlan plastiko baten bidez”.

Bi urte dira Fuchsen lehen ideiak piztu zirela, eta ordutik orain arte egin duten ibilbidean aktoreek ere zeresan handia izan dute. Hori baimentzen duen lan-egiteko moduari esker izan da hala: egonaldi egonaldi, inprobisazioari eta momentuko sentsazioei garrantzia emanez. Lehen aldiz ari da neurri eta molde honetako antzezlan batean Erika Olaizola aktore azpeitiarra, eta talde honen parte izatea oparia izan dela dio: “Niretzat berria da lan egiteko modu hau, baina oso atsegin ari da izaten. Pixkanaka eman diogu forma antzezlanari. Jende asko aritu gara bakoitza bere postutik lanean, eta ederra da gero dena elkartzean zentzua hartzen duela ikustea”.

Bizirik dagoen antzezlan

Aktoreak sortze prozesuaren parte aktibo izan badira, gauza bera esan daiteke testuaren ardura izan duten idazleen paperaz ere. Igor Elortza eta Unai Iturriragak idatzi zuten lehen abiapuntua, eta geroztik, hainbat entsegutan egon dira, aktoreekin eta zuzendariarekin hitz egin eta moldaketak egiteko. Batzuek eta besteek elkar elikatzen dute. Fuchsen hitzetan: “Antzerkia idatzi egi-



Ander Lipus,
antzezlanaren gainerako
aktoreen artean.

ten da, baina ez dugu uste oholatzatik kanpo idatz daitekeenik. Hori tomateak lurretik kanpo egitea bezala litzake. Horregatik etortzen dira idazleak entseguetara, aldaketak proposatzen dituzte, berriro ekartzen dute proposamena, entseatzeko dugu berri...".

Aldaketa gehiago egiteko tarte ere izango dute oraindik, publikoaren erreakzioen berri dutenean: "Publikoarekin hasten garen arte normalean ez dugu ulertzen zer den adierazten duguna. Hori ezin da jakin publikorik gabe.

Horregatik mugimendu etengabea dago antzezlanaren material bizia da".

Indar metaketaren fruitua

Euskal antzerkizaleak gutxitan izaten du tamaina eta ibilbideko honetako antzezlan originalaz gozatzeko aukera. Hiru urtean behin elkartzen dira Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia antzerki taldeak, eta hiruren arteko indar batuketa horrek baimentzen die hala lan egitea. *Errautsak* eta *Hamletekin* – bigarrenarekin, batez ere – lortutako arra-

kastaren ostean, hirugarrena dute *Franco-ren bilobari gutuna* izendatu dutena.

Egonaldi luzeak eginda, elkarrekin egoteari eta talde-lanari balioa emanda ondu dute azken emaitza. Azken prestakuntzak fintzeko, hiru asteko egonaldia egiten ari dira Luhuson, eta bertan erakutsiko dute jendaurrean lehen aldiz orain arte landu dutena. Urriaren 31n izango da hori. Horren ondoren, ia etenik gabe arituko dira Euskal Herrian barrena, berrogei emanaldi baino gehiago eskainiz. Gutxienez, maiatzaren 5era arte. ■



UNAI ITURRIAGA eta IGOR ELORTZArekin idatzia
ZUZENDARIA: XIMUN FUCHS
AKTOREAK: ANDER LIPUS PATRICIA URRUTIA MANEX FUCHS
ZOILA BERAESTEGI URKO R. PESCADOR PAKO REVUELTAS ERIKA OLAIZOLA

Artedrama | Le Petit Théâtre de Pain | Dejabu Panpin Laborategia

www.franco.eus

URRIA
31 LUHUSO

AZAROA
2 GASTEIZ
4 AZPEITIA
9 DONOSTIA
10 DONOSTIA
11 DONOSTIA
12 DONOSTIA
13 DONOSTIA
17 BILBO
18 LEIOA
19 DONIBANE GARAZI
26 LARRESORO

ABENDUA
1 IRUÑA
3 SENPERE
4 HONDARRIBI
6 DURANGO
9 SOPELA
11 MARKINA-XEMEIN
16 ZUMAIA
17 OTXANDIO
18 ATAUN





Sara Hebe

“Musikak ez du iraultzarik egingo, baina iraultzen bidelagun izatea dagokigu musikarioi”

Joan den udan egindako Europako Biran ezagutu genuen Sara Hebe rapeatzaile patagoniarra, zenbait adituren arabera Argentinako rapeatzaile onena dena. Berandu baino lehen Euskal Herrira itzuliko zela agindu zuen eta bere hitza betez, Gasteizko Gaztetxean eta Bilboko Hikatenekoan ikusi ahal izan dugu azken asteotan. Chubut probintzian jaioa, begi berde argiak berau populatu zuten galestarrenak dituela dio; Mediterraneoko arbasoena berriz, azal beltzarana. Erresistentzia lurralde bezala deskribatzen duen hegoalde horri zor dio bere mundu ikuskera eta “bere testua”. Elkarrizketa egiteko proposamena luzatu eta agudo heldu dio gonbidapenari: “Galdetua izatea luxu bat da, erantzunen inguruan pentsatzeko aukera eskaintzen baitizu”. Musikaz eta musika ez denaz, galdetu diogu beraz.



Iraitx Agirre Aranguren

@garoharria

ARGAZKIAK: MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Nola hasi zinen rapeatzen?

Antzerkia eta dantza ikasten ari nintzen Buenos Airesen, Norman Briski aktore, dramaturgo eta idazle ezagunarekin. Antzerki herrikoia eta politikoa egin izan du beti, erresistentziari lotutakoa, mugimendu sozial ezkertiar eta antikapitalistei guztiz atxikia. Bere eskola izan da nirea. Lantoki baten berreskurapenaren inguruko antzerkia prestatzen genbiltzan. Aurreko hamarkadan Argentinan gertatutako *corralito*aren krisi garaian asko zabaldu zen fenomeno hori izan zen hau. Patronalak fabrika asko hustu eta itxi zituen, baina langileek lantoki horiek berreskuratu eta ekoizpen sistemak kooperatizatu zituzten.

Antzerkian hori kontatzen genuen eta langileek ere parte hartu zuten. Bu-kaeran bada abesti bat, *Gure lantegia-
ren ereserkia* oso melodikoa izan arren errima ere badeuena. Eta ni kontu honekin bueltaka nenbilenez, Normanek bota zidan ea zergatik ez nintzen errima horien rapeatzera animatzen. Oinarri batzuk deskargatu nituen internetetik eta testua horren gainean josten hasi nintzen. Orduan ekin nion “nire testua” idazteari.

Metrika eta lirika zorrotzarekin, gordin eta poetikoki egindako kritika soziala da zure hitzen ardatza. Letra zuzenak eta kokatuak.



Rapa horrexegatik gustatu izan zait beti, aurrez-aurreko diskurtsoa duelako, salaketa eta iritzia emateko plataforma gisa erabili izan delako hasieratik. Gertatzen ari diren hainbeste gauza komunikatu eta ikusarazteko modu oso on bat da.

Bat kokatu egiten da beti. Aukeratu egiten dugu nondik dihardugun, nondik sortzen eta esaten dugun. Ana Ti-joux rapeatzaile txiletarrak dioen bezala, musikak ez du iraultzarik egingo, denon artean egin beharko dugu. Baina musikari eta artistoi iraultza ezberdinen bidelagun izatea dagokigu, iraultza horiekin bat egitea beren aniztasun eta adierazpen guztietan.



Sara Hebe rapeatzaile argentinarra birritan izan dugu aurten Euskal Herrian. Kontzertu eta kontzertu artean, bidaiez gozatzea maite du. Zumaian igarotako hiru egunetako oporraldian egin genion elkarrizketa.

Udako Europako biran bakarrik etorri zinen, zure ohiko kidea den Ramiro Jota gabe. Bakarrik edo elkarrekin, baina eskenatoki osoa betetzen.

Gorputz asko jartzen dut bai, gorputzarekin abestea gustatzen zait, ez letrarekin bakarrik. Mugitzea, dantzatzea... horrela irteten zait. Gozatzen dut formatu txikian, baina oro har, nahiago izaten dut eskenatoki handietan bolumen altuan abestea. Elkarrekin soinu itzela lortu dugu taldean, oso gogorra, rockeroagoa agian, punkagoa.. *Puentera* gure azken lanak ondo deskribatzen gaitu biok. *Palo cumbiero*-tik gatoz, rocka eta hip hop-a atsegin ditugu. Batzuetan galdetzen didate ea nola definituko nukeen

nire musika eta nik diot, ez nukeela definituko. Definitzea eta tipifikatzea kartzela antzeko bat dira.

Irakurria dizut, bidaiatzeko sortzen duzula eta sortzeko bidaiatzen.

Haurra nintzenetik horixe eskatzen nuen, "bidaiatu nahi dut, bidaiatu nahi dut", eta amak, etorriko zenaren jakitun edo, esaten zidan: "Lasai, bidaiatuko duzu eta!" Eta begira orain. Lortu dut momentu honetan musikaz bizitzea eta horri esker, asko bidaiatzea. Iaztik manager baten laguntza daukat eta ekoiztetxe txiki batekin egiten dut lan. Antolatzen laguntzen didate, eta egia esan kostatzen zait, ze orain arte dena nik

egin dut. Nire ahotsa zegoen. Bitartekoak egoteak zailtzen ditu gauza batzuk, baina era berean, diskoak egin eta abestea da nire lana.

Ask al zarete Argentinan emakume rapeatzaileak?

Rapak jarraitzaile asko ditu. Ere mu publiko denetan bezala mutil gehiago dabil, baina gero eta gehiago gara emakumeak. Erreferente garrantzitsu batzuk baditugu, 90. hamarkadan ezagun egin zen Actitud Maria Marta adibidez. Izen-daezinak (Sarak ez du Carlos Medem Argentinako lehendakari ohiaren izena inoiz esaten, zorte txarra dakarrela baitio) diktadura militarreko errudunak

indultatu zituen garaian, oso ezaguna egin zen letra antifaxista eta konprometituengatik. Desagertuen *Hijos* elkartearekin eskuz esku aritu zen. Bera eta beste askori esker, egun rap kultura handia dago Argentinan. Batez ere hegoaldean, nire jatorrian. Han inon baino gehiago entzun eta egiten dela esango nuke.

Zeri erantzuten dio horrek?

Argentinan badugu nortasun arraro bat, jatorrizko herrien sarraskiaren inguruan forma hartzen duena. Hainbeste herri, kultura eta hizkuntza suntsitzen garatu den identitate bat. Badago zerbait *kulpogenoa* hor, argentinarrongan. Suposatzen dut horri erantzuten diola.

Hegoaldearen kasuan, klima sozial oldarkor bat ere gehitzen zaio horri. Hain urruti dago, ezen inoiz ez dakizun zer gertatzen den bertan. Indarkeria polizial handia dago, ustelkeria eta nagusikeria itzela. Maputxeen lurrak sistematikoki lapurtuak izan dira, gobernuaren zein enpresa handien gehiegikeriak jasaten dituzte etengabe. Patagonia baliabide natural asko dituen lurraldea da eta enpresa handien esku geratzen ari da, Benetton multinazionala kasu. Baina Patagonia erresistentzia lurraldea ere bada, jende antolatua, mugimenduen... Hegoaldeak izaera erresistentea du, herri borrokalaria da. Suposatzen dut bertako jendearen adierazpen kulturaletan ere igarriko dela hori.

Palo cumbierotik zatozela diozu. Erritmo horien inguruan hedatu den dantza moduak misoginiatik baduela aipatu didazu. Bai, baina iruditzen zait gauza batzuk desmoralizatu egin behar direla, generoa kendu behar zaiela, adibidez, *perreo* edo *twerking*ari, eta esan: ni nahi dudak tokian kokatzen naiz, gura dudak rolean, hemen edo bestean, heteroaraua baztertuz. Baina ez pentsa, kostatzen zait batzuetan *twerking* feministaren hau ondo ulertzea. Gorputz adierazpena trantzean egoteko bide bezala ulertzen dut, ez dut gustuko estetikari eta azalekotasunari erantzuten dionean. Dantzan ari naizenean bost axola dit zein logikari erantzuten diodan, baina interesgarria iruditzen zait estetikatik irten eta gauzak modu primitiboagoan bizitzearen ideia. Mugimendu horiek denak urbanizatutako dantza afrikarrak direla ez dugu ahaztu behar.



SARA HEBE

TRELEW, CHUBUT (1983)

Palo asko ukitzen ditu eta ez zaio rapaz hitz egitea hainbeste gustatzen. Bere hiru lanak horren erakusle dira: *La hija del Loco* (2009) Argentinako hip hop eszenako ekoizleen oinarri originalak ardatz dituen lana; *Puentera* (2012), reagea, cumbia eta dancehall-a nahasten dituen; eta *Colectivo Vacío* bere azken lana (2015), non punk rocka, funk karioka eta cumbia uztartzen dituen.

“Rapak jarraitzaile asko ditu. Ere mu publiko denetan bezala mutil gehiago dabil, baina gero eta gehiago gara emakumeak. Erreferente garrantzitsu batzuk baditugu, 90. hamarkadan ezagun egin zen Actitud María Marta adibidez”

“Gorputz asko jartzen dut bai, gorputzarekin abestea gustatzen zait, ez letrarekin bakarrik. Mugitzea, dantzatzea... horrela irteten zait”

Nola ikusten duzu borroka feminista zue-nean?

Urte hauetan egindako bideari esker feminismoaren borroka oso aktibo eta indartsu dago Argentinan. *Ni una menos* (Ezta bat gutxiago ere) martxak indarra hartu du. 200.000 pertsonatik gorako manifestazioetan irten gara kalera. Erailketa matxisten kopurua itzela bada Europan, imajinatu gurean, Latinoamerikan. Zazpi orduan behin Mexikon emakume bat erailtzen dute; Argentinan 30 orduan behin dela uste dut. Mugimenduak indarra hartu du eta orain, misogino eta matxistena ere agertzen da “Ezta bat gutxiago ere” dioen kartelarekin. Hori ere gertatzen da eta protesta banalizatzeko arriskua egon daiteke, baina kalera irteten jarraitu beharra dago.

Azken hamarkadatan ezkerreko bloke bat sortzeko saiakera garrantzitsua egon da Latinoamerikan, baina hau geldotzerakoan, eskumak aurrea hartu du. Feminismoarekin ere antzeko zerbait gertatzen dela uste dut. Inoiz baino ozenago eta antolatuago ari garen honetan, bai gurean bai mundu mailan, kontra-ofentsiba ere izugarria da.

Uztailean estreinatu zen *El Marginal* Argentinako telebista publikoan. Zure aholtsak zabaltzen du telesaila..

El Marginal single hau kartzelari buruzko izen bereko telesailerako eskatu zidaten ekoizleek, nobelaren gortina gisa. Ramiro Jota eta Flor Linyerarekin batera egin nuen. Flor (*Cumbia Queens* taldeko kide eta teklista) espezialista da cumbian eta abesti honetako erritmoek *cumbia villera*, Argentinako auzo txiroetako erritmo modua dute oinarri. Hitzekin ere gustura geratu nintzen. Giltzaperatua egoteaz, espetxeratzeaz, kartzelaz eta askatasunaren prezioaz kantatzen dut.

Letra unibertuala da eta munduko lau hegaletako errealtateak deskribatzeko balio dezake. Hemen ere ezagun duzue hori. Tristeza eta beldurgarria iruditzen zait euskal preso politikoen egoera, Ginebran dagoen Nekane Txapartegirena kasu. Faxismo europarrarena itzela da... Latinoamerikan ere bide beretik goaz, edozein altxamendu herritar zein sozial oztopatzen ari dira. Zorionez, borrokan alaitasunarekin ari garen sorgin eta aztiak asko garela uste dut. Zer egingo diogu bada! Horrelakoa da erresistentzia. ■

ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Ez beldurrik izan
datorrenari...
eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

50€

9€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus




KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Borrokalariaiaren lasaialdia



Xabier Etxaniz Erle



Bost minutuko lasaialdia

JILL MURPHY

Ilustrazioak: Jill Murphy
Itzulpena: Manu López Gaseni
Pamiela, 2016
28 orrialde

Jill Murphy idazle eta ilustratzaile ingelesa nahiko ezaguna da nazioarte mailan, baina oker ez banago, hauxe dugu bere lehen lana euskaraz. 1986an argitaraturiko lan honek, gainera, egile honen bilduma ezagunenaren baitan kokatzen da: *The Large Family* (*Familia handia*).

Bost minutuko lasaialdia izenburuak berak adierazten duen bezala, horixe dugu album honen gakoa. Itzel andreak bost minutu nahi ditu berarentzat, bakarrik, atsedean hartzeko, lasai egoteko... eta nahi horren inguruko kontakizuna dugu Murphyk era umoretsuan eskaintzen diguna.

Liburuko azalean eta hau pasa bezain pronto irakurleak ikus dezakeen bezala elefante familia bat dugu liburuko protagonista; pertsonifikaturiko elefanteak, hain zuzen.

Eta kontakizunean sartu aurretik badira protagonista horien jokabidearen inguruko hainbat pista: umeak amari jarraika, txikiena katilua buruz behera hustuta... Eta, hain zuzen, horixe bera da, ume bihurri eta jolasti, nekaezin batzuk, amak ikusten dituen sukaldean. "Umeak gosaltzen ari ziren. Hura ez zen, ez ikuskizun ederra". Hitz horiekin ekiten dio egileak narrazioari; irudietan, aldiz, informazio osagarria dugu, ama etsituta, umeak bihurrikerietan, sukaldean anabasa eta zikinkeria.

Itzel andreak, horrela du izena elefante amak, erretiluan bere gosariko gauzak eta egunkaria hartu, eta sukaldetik irten nahi du isilik, "ezari-ezarian". Eten egin behar du une batez ume horiekin eta bainugelara joatea erabakitzen du: "Bost minutuko lasaialdia behar dudalako, zuek gabe".

Umeek, baina, badute horrela sen berezia, nahi ez duguna, eskatu dugunaren kontrakoa egitekoa. Eta horixe da amari, Itzel andreari, gertatuko zaiona. Lehenik zaharrena, musika jotzen, ondoren erdikoa, ipuina irakurtzen, eta azkena txikiena jostailuak eskaintzen, hurrak agertzen zaizkio amari bost minutuko lasaialdi horretan.

Irakurleak aurreikus dezakeen bezala amaren lasaialdiak ez du asko iraungo, are gutxiago hiru umeek baineran sartzea erabakitzen dutenean.

Modu umoretsu batean Jill Murphyk, ilustrazioetan indar handia jarritz, normalean amek jasaten duten lan etengabearen irudia eskaintzen digu; eta ama diot, aitaren irudia ez baita liburuan ageri.

Itzel andrea haserre azaltzen zaigu hiru umeak baineran jolasean ari direnean, berak alde egin behar duenean, eta haserre sukalderra doa esaten dienean: "Bost minutuko lasaialdia behar dudalako, zuek gabe -esan zuen Itzel andreak-. Horregatik".

Amaieran, berriz, ama ikusten dugu sukaldean, lasai antzean; baina ez bost minutuko lasaialdian: "Behera joan zen, eta han hiru minutu eta berrogeita bost segundoko lasaialdia izan zuen, umeak berarengana berriro etorri baino lehen".

Egia esan, batzuetan hiru minutu eta berrogeita bost segundo ia-ia bost minutu direlako. ■

Jill Murphy (Londres, 1949).



» **TELEGRAMA**

Urriaren 29an **Xilaba Bertsulari Xapelketaren azken finalaurrekoa** Larresoroko Herriko Gelan; 17:00etan **STOP Mikel Sanz** idazleak *Esquirlas personales* liburua aurkeztuko du Iruñeko Katakarak-en, azaroaren 4an, ostiralez, 19:00etan **STOP Ados Teatroa** konpainiak *Zapatila gorridun mutikoa* lana jokatu du Donostiako Lugaritz Kultur Etxean, Imanol Larzabal Aretoan, azaroaren 5ean, larunbatez, 18:00etan **STOP Ikuspegi feministak** ekoizpen artistikoen eta artearen teorien V. edizioa burutuko da urriaren 28tik urriaren 30era, Bilboko Azkuna Zentroan **STOP**

» **DISKOA**

Musika pastelxo gozoak



Joxi Ubeda

**Eclair**

BONBERENEAKO EKINTZAK

DVD, 2016

Tolosako Bonberenea etxean 2012 eta 2015 urteen artean izandako hainbat kontzertutako grabazioak biltzen dira *Eclair* izenburua duen DVD bilduman. Talde hauek ikus daitezke Bonberenean jendaurrean jotzen: Anestesia, Estricalla, Manolo Kabezabolo, No More Lies, Betunizer, Bullet Proof Lovers, Capsula, Atom Rhumba, Belako, El Columpio Asesino, Kashbad, Governors, Anger, Humus, Glaukoma, Nueva Vulcano, Dinero, Minor Empires, Viva Belgrado eta Bonberenea Txaranga.

Hogeitaz talde dira orotara. Estilo eta mota ugaritako taldeak, hemengoak eta hangoak. Soinua eta irudiak oso onak dira, kalitate handikoak, eta ederki erakusten dute taldeek egiten dutena, beren nortasuna eta mezua. Kontzertu horietan izandakoei orduko oroitzapen gozoak berriz ere bizitzeko parada eskaintzen die *Eclair* bildumak, eta egon ez direnei une horiez gozatzeko.

Bonbereneak duela hamar urte kale-ratu zuen *Bonberenea Suffle* izenburuko DVDa, eta lan horrek Bonberenean ordura arte izandako zenbait kontzertutako irudiak biltzen ditu, jaki ederrak. *Eclair* lanean Bonbereneako sukaldetan prestatutako beste jaki ahogozagarririk batzuk dasta daitezke, osagai ugariaren bidez prestatutako pastelxo gozoak, musikazaleek atsegin handiz dastatuko dituztenak.

Bonberenea 1997ko abenduaren 5ean okupatu zuten, beraz aurki hoguei urte beteko ditu, hurrengo urtean hain zuzen, eta sasoiko dago. Aurrera jarraitzen du, autogestioaren bidetik, oztopoak gainditzen, berritzen etengabe, eta ideia eta proiektu ugariarekin. ■

Tolosako Bonberenea etxea. Abenduan hemeretzi urte beteko dira abian jarri zutela.



Emakumeen lana ikus-entzuteko beharraz

"EMAKUMEAK EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKOETAN: HEZKUNTZATIK LAN MUNDURA" MAHAI-INGURUA

Lekeitioko 39. Zine Bileraren barruan, urriaren 22an (H)emen-Her(e) plataformak antolatu zuen mahai-ingurua eta bertako Kristina Zoritak moderatu. Beraien bizipenetatik aritu ziren Amara Mosteiro, Izibene Oñederra, Nahia Laka eta Eneko Sagardoy.



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Ale Goikoetxea

Europar ekoizten diren filmen %21a baino ez dira emakumezkoek zuzendutakoak; datu horrekin eman dio hasiera Kristina Zoritak emakumea eta ikus-entzunezkoei buruzko mahai-inguruari Lekeitioko Zine Bileran. Aipatutako datua Europako sei herrialdetan egindako inkesta batean eskuratutakoa da. Finantzaizioaren %84a ere gizonezkoek zuzendutako filmetara bideratzen da ikerketa honen arabera, zine eskoletan ikasleen erdiak emakumezkoak diren arren. Datuak datu, egun ikus-entzunezkoen arloan diharduten emakumeak gerizatik atera eta erreferente bilakatzeko premia azpimarratu dute beraien bizipenak elkarbanatzera gonbidatutako hizlariak.

Amara Mosteiro Euskal Herriko Zinema eskolako irakaslea, Izibene Oñederra Arte Ederretan doktorea eta animaziozko filmen egilea, Nahia Laka ikasketak eta praktiken osteko lanaldia bukatu berria, eta emakume hauen artean Eneko Sagardoy aktorea. Azken hau, hanka puntetan gerturatu da, gizonezkoa izanik, bere burua boteredunen taldean kokatzen duelako eta beraz, berba egitera baino entzutera gerturatu dela adierazi du.

Eusko Jaurlaritza burutzen ari den ikerketak dio ikus-entzunezkoak ekoiz-

ten dituzten enpresetako lau ardura-dunetatik bakarra dela emakumezkoa. Datu horrek ez du sorpresaz harrapatu Mosteiro. Bere lankideen artean *"la mujer eléctrica"* moduan ezagutzen zutela du gogoan, eta bere lan esparruan etengabe argazkilaritzarako duen gaitasuna erakutsi beharraz mintzatu da. Laka ostera, hasiberria denez, itxaropentsuago agertu da: oraindik sektorea norabidez aldatu eta emakumeek bere lekua egingo dutela dio. Gainera, apurka bada ere aldaketa ematen ari dela aipatu dute bertaratutakoak, baina hori behar den moduan gertatzeko emakumeen lana bistaratzearen garrantzia azpimarratu dute, ondorengoek emakumezko erreferenteak izatea ezinbestekoa delako.

Emakumeei zuzendutako laguntzen artean gutxieneko kuota batzuk bermatu behar diren edo ez sortu da eztabaida. Laguntzak izenik gabeko proiektuetara zuzendu behar direla esan du Mosteirok, emakume zein gizonezkoak pareko. Entzuleen artean, aldiz, kontrako iritzia gailendu da, abiapuntu ezberdinetatik abiatzen garen bitartean, gutxieneko bat behintzat emakumeek egindako lanetara bideratu beharra dagoela esan dute, gutxienez pareko izango garen egoera idiliko horretara iritsi bitartean.



SARITUTAKO FILMAK:

- Film eta ekoizpen onena profesional mailan: *N'Diawaldy Bouly* (Natxo Leuzak zuzendua).
- Film eta gidoi onena amateur mailan: *Karta astrala* (Maite Bidarte eta Koldo Garciak zuzendua).
- Antzar Morea saria, genero ikuspegia ongien landu duen filmari: *Beti bezperako koplak* (Ageda Kopla taldeak zuzendua).
- Saritutako beste filmak: *Xinta Dantza*; *Hasiera*; *280°* eta *Korronteari aurre*. *Euskal balezaleak Islandian*.

Erakundeei sentsibiltatea eskatu die, eta kulturen inbertitzen den diruak eman ditzakeen etekinei gutxiago erreparatzea: "Garraio publikoak ez du etekin ekonomikorik ematen eta inork ez du arlo horretan diru publikoa inbertitzea zalantzan ipintzen" kexatu da Sagardoy. Baina Oñederrak gogora ekarri du erakundeak gizartearen isla direla. Eta ni neu, ados nago azken aipu horrekin. Izan ere, entzule gisa batu garen hamar lagunenez kezkak nekez irauliko du ikus-entzunezkoen egungo panorama maskulinoa. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Manex Agirrek 2013an Gasteizen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Mundu honetan holako gauzak*.

Gaia: Duela 30 urte, Gasteizko jaietan, ez gaur bezala azken egunean, baizik eta lehen egunean, Hala Bedi irratia jaio zen.

Hogeita hamar urte ____ dira
a ze-nolako pasada!
____ urteetan hori hausnartzen
apur bat aritu gara.
Agintarien zirikatzaile
stablismenaren
irreberente xamarrek beti
baina ____ hara:
batzutan nonbait nabarmentzeko
____ egin behar da.

Garai baten manifa ateoak
ziren ____ neurrira
Suelta la ollak hainbeste urtetan
edukia du ____
____ hutsezko irrati baten
bila ari gara di-da
behatzu begian ____ dugu
onartu behar da tira
baina hala bedi ja Gasteizko
historiaren ____ da.

Propaganda apur bat egin dut
aldeaz aurretik ____
laguntza ere behar dugula
nahi dut ____ luzatu:
bazkide egiteko eskatzea
gehitxo da ta ez ____
baina azkeneko gauean behintzat
____ gerturatu
hala bediko txosnara joan
eta tragotxo bat ____.



Goiena-CC By SA

N	Z	F	R	I	I	F	A	R	L	N	C	P	E	O
S	L	M	Z	P	G	J	D	T	E	M	I	P	R	E
Z	A	H	E	U	S	K	A	R	A	A	U	Z	E	M
U	D	O	D	U	L	S	E	R	Z	V	S	H	S	R
U	D	P	I	L	T	M	F	I	H	H	G	T	E	A
T	H	D	A	R	L	A	S	E	T	C	M	O	G	P
R	I	B	M	S	O	B	K	P	B	H	T	K	I	F
A	H	R	M	A	A	D	H	R	F	F	X	A	D	T
H	Z	A	M	T	L	T	N	R	A	G	O	R	A	D
F	P	S	S	R	N	B	U	O	A	B	S	G	H	A
B	F	L	U	A	F	E	S	C	E	A	N	A	I	T
A	C	U	L	P	L	T	O	R	U	A	P	E	A	R
P	Z	M	O	G	Z	I	T	T	R	F	T	N	N	R
S	S	B	L	A	O	Z	Z	A	J	O	A	N	V	A
N	P	R	T	N	O	E	G	E	M	F	R	R	C	Z
I	P	I	D	E	N	N	E	K	Z	A	I	D	R	R

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										

Ezker-eskuin:

1. Bakarti, goibel. Paretan ezartzen den ohol.
2. Itsas kirol. Baserriko animalia. 3. Olerki lirikoa.
- Gaixotasunen bat duena. Ukatzeko. 4. Itsas hegian bizi den hegazti. 5. Alaiki, umoretsuki. 6. Infusio bizigarri.
- Etxeko erregai. Desagertutako ugaztun. 7. Su egiteko erabiltzen den gai. Deus. 8. Upa. Baizik.

Goitik behera:

1. Hegazti mota. Ikusten ez duena.
2. Arreta, ardura. Aupa, iepa!
3. Arrain mota. Germanioaren sinboloa. 4. Interjekzioa. Mehe, estu. 5. Pluralean, barne-organoak.
6. Zeharo, erabat. 7. Hegazkin.
8. Bizkaiko herria. 8. Azpi, behe.
- Urez garbitu. 9. Areago. Irendu dena. 10. Gipuzkoako udalerrria (Argazkian). Erabat.



Sudokua

Erraza

	5		6		3			2
		8	1		4		6	
		2			9	3		
8				1			7	
	1	9	3		7	6	8	
	7			6				4
		5	4			8		
	8		2		6	9		
3			7		8		2	

Zaila

	9	8						3
					3		5	
2				1				7
	2	9			5	7		
4				8				1
		1	9			6	2	
9				7				5
	8		4					
6						1	7	

Soluzioak

Hogeita hamar urte **joan** dira/a ze-nolako pasada!/**Azken** urteetan hori hausnartzen/apur bat aritu gara./Agintarien zirikatzaile/stablismenaren **karga** irreberente xamarrek beti/haina **ondorioa** hara./batzutan nonbait nabarmentzeko/zarata egin behar da./Garai baten manifa ateoak/ziren **elizen** neurritik/Suelta la ollak hainbeste urtetan/edukia du **segida**/euskaraz hutsezko irrati baten/bila ari gara di-da/behatzu begian **sartoriaren** zati da./Propaganda tira/haina hala bedi ja Gasteizko/historiaren **zati** da./Propaganda apur bat egin dui/aldez aurretik **barkatu**/laguntza ere behar dugula/nahi dui **mezu** luzatu:/bazkide egiteko eskatzea/gehitxo da ta ez **pasatu**/haina azkeneko gauean behintzat/**txosnatar** gerturatu/hala bediko txosnara joan /eta tragotxo bat hartu.

N	Z	F	R	I	I	F	A	R	L	N	C	P	E	O
S	L	M	Z	P	G	J	D	T	E	M	I	P	R	E
Z	A	H	E	U	S	K	A	R	A	A	U	Z	E	M
U	D	O	D	U	L	S	E	R	Z	V	S	H	S	R
U	D	P	I	L	T	M	F	I	H	H	G	T	E	A
T	H	D	A	R	L	A	S	E	T	C	M	O	G	P
R	I	B	M	S	O	B	K	P	B	H	T	K	I	F
A	H	R	M	A	A	D	H	R	F	F	X	A	D	T
H	Z	A	M	T	L	T	N	R	A	G	O	R	A	D
F	P	S	S	R	N	B	U	O	A	B	S	G	H	A
B	F	L	U	A	F	E	S	C	E	A	N	A	I	T
A	C	U	L	P	L	T	O	R	U	A	P	E	A	R
P	Z	M	O	G	Z	I	T	T	R	F	T	N	N	R
S	S	B	L	A	O	Z	Z	A	J	O	A	N	V	A
N	P	R	T	N	O	E	G	E	M	F	R	R	C	Z
I	P	I	D	E	N	N	E	K	Z	A	I	D	R	R

6	4	5	2	3	8	1	7	9
1	8	7	4	5	9	3	6	2
5	1	8	1	7	2	3	6	4
8	2	9	7	6	1	4	5	3
1	6	5	3	8	2	5	9	1
4	7	6	3	8	2	5	9	1
8	2	7	6	3	8	2	5	9
7	9	8	6	3	5	1	4	2
5	6	3	2	5	6	3	2	5
3	4	1	3	6	2	7	1	4

3	4	6	7	5	8	2	1	9
4	8	7	2	3	6	9	5	1
6	2	5	4	9	1	8	3	7
5	7	3	8	6	2	1	9	4
2	1	9	3	4	7	6	8	5
8	4	6	5	1	2	3	7	9
7	3	8	1	2	4	5	6	9
9	5	4	6	8	3	7	1	2

Erraza

N	Z	F	R	I	I	F	A	R	L	N	C	P	E	O
S	L	M	Z	P	G	J	D	T	E	M	I	P	R	E
Z	A	H	E	U	S	K	A	R	A	A	U	Z	E	M
U	D	O	D	U	L	S	E	R	Z	V	S	H	S	R
U	D	P	I	L	T	M	F	I	H	H	G	T	E	A
T	H	D	A	R	L	A	S	E	T	C	M	O	G	P
R	I	B	M	S	O	B	K	P	B	H	T	K	I	F
A	H	R	M	A	A	D	H	R	F	F	X	A	D	T
H	Z	A	M	T	L	T	N	R	A	G	O	R	A	D
F	P	S	S	R	N	B	U	O	A	B	S	G	H	A
B	F	L	U	A	F	E	S	C	E	A	N	A	I	T
A	C	U	L	P	L	T	O	R	U	A	P	E	A	R
P	Z	M	O	G	Z	I	T	T	R	F	T	N	N	R
S	S	B	L	A	O	Z	Z	A	J	O	A	N	V	A
N	P	R	T	N	O	E	G	E	M	F	R	R	C	Z
I	P	I	D	E	N	N	E	K	Z	A	I	D	R	R

Ona Carbonell. Urpekougarra



Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoen ondorengo oporrak amaitzen ari zaizkionean elkarriketatu dugu Ona Carbonell (1990,artzelona), igeriketa sinkronizatuan onena izateko borrokatzen duen kirolaria. 26 urte bete berri eta 30 domina baino gehiago eskuratu ondoren argi du iraunkorra eta saiatua izatea direla kirolari onenen nahitaezko osagaiak.

“Kirolari hobeaz izateko ezinbestekoa da burbuilatik atera eta kulturaz janztea”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JOAN MARC BOSCH

Itsaslamina

“Txikitatik ura eta artea izan dira nire pasioak eta igeriketa sinkronizatua bi horien nahastura perfektua da. 10 urte nituenean murgildu nintzen ur azpian eta berehala ikusi nuen ezkatari gabeko itsaslamina izan nahi nuela. Igeriketaren modalitate hau bereziki da gogorra, hiru minutuan urte askoko lana jartzen dugulako jokoan, baina, aldi berean, horrek egiten du berezi. Emaitzarik onenak iristear daude eta bidean bizi dudaren esperientzia bakoitza, izan ona edo txarra, nahitaezkoa izan da erronka guztiak asetzeko”.

Hilabete pasa da Olinpiar Jokoetatik itzuli zinenetik, dominarik eskuratu gabe.

Oso pozik itzuli ginen. Rion bi helburu genituen: lehena domina, noski, eta hori ez genuen ekarri; bigarrena, igeriketa sinkronizatua berritzen jarraitzea, aurrerantzean gogoratuko den koreografia bat eginez, eta bigarren hori bete zen.

Dominak, hala ere, pisu handia du. Zenbateraino eragiten dizu?

Kirolari orok daki lehiaketetan edozer gerta daitekeela. Olinpiar Jokotan denak ateratzen gara irabaztera. Beraz, bagenekien ez zela erraza izango. Esango nuke hori dela lehiaketaren gauzarik onenetakoa, urte asko borrokatzen ari-tu ondoren ez dakigula irabaziko dugun edo ez. Domina ez lortzea niretzat ikasketak itzela izan da.

Nolatan murgildu zinen igeriketa sinkronizatuan?

Txikitan gimnasia erritmikoa egiten nuen eta 10 urte bete nituenean *sinkro*-ak erakarriratsaiakera egin nuen. Uraren eta artearen, nire bi pasioen,

nahastura perfektua zen... Estreinaldian argi izan nuen ezkatari gabeko itsaslamina izan nahi nuela. Baina ez zen txikitako bokazioa izan. Ez nuen sekula amets bakartzat izan.

14 urte zenituenean Espainiako selekzioa joan zitzaizun ate joka.

Nire bizitzako unerik zoriontsuenetakoa izan zen. Oraindik lau urte gelditzen zitzaizkidan teknifikatzeko eta eskaintza hark, bat-batean, lau urte horiek gaindituta nituela erakutsi zidan. Ordura arte arraro sentitzen nintzen, beti gehiago nahi nuelako eta sentsazioa nuen ez nuela behar bezala aurrera egiten. Aukera hura izan zen egindako lanaren saria, eta orduan ikusi nuen baietz, hori zela nire tokia.

Duela pare bat aste aurkeztu zenuen zure lehen liburua: *Tres minutos, cuarenta segundos* (Hiru minutu, berrogei segundo). Omenaldi berezia egiten diozu Londresko Joko Olinpikoetan lortu zenuen zilarri. Zenbateraino izan zen garrantzitsua lorpen hori zure ibilbidean?



Asko, nire kirolari ibilbideko unerik gogorrenetako baten ondoren –Pekingo Joko Olinpikoetatik at gelditzea–, Londresen taldeko norgehiagokan brontze domina eta bikotekakoan zilarra irabaztea ikaragarria izan baitzen. Lau urte lehenago ireki zitzaidan zauria itxi nuen horrela.

Zer aurkituko du irakurleak liburuan?

Eleberri gisa idatzitako liburu autobiografikoa da. Euskarri hori erabaki nuen nirekin edo igeriketa sinkronizatuarekin interesa dutenengandik harago ere iristeko asmoz. Liburua 10 urteko neska txiki baten istorioa da. Ez da dominei ezta arrakastei buruzko liburu bat, baizik eta nire dilemei, familia, lagunak eta kirola uztartzeko zailtasunei eta bizipen eta ikaste prozesuei buruzkoa.

Zer behar du goren mailako kirolariak?

Osagai asko. Ezinbestekoa da langilea eta saiaturia izatea, baina norgehiagokan ere trebea izan behar duzu, jende guztia ez baita gai. Ongi entrenatu behar da, irmoa izaten jakin behar da. Horrela, poliki-poliki, kirolari orok faltan di-

Igeriketa sinkronizatuan izandako esperientziak biltzen dituen liburu autobiografikoa aurkeztu berri du Carbonellek: 'Tres minutos, cuarenta segundos' (Hiru minutu, berrogei segundo).

tuen osagaiak lortzen ditu eta trebea den beste horietan guztietan are hobea izaten amaitzen du.

26 urte bete berri dituzu eta zure kalkuluaren arabera horietako hiru urte eta erdi pasa dituzu ur azpian.

Bai, denboraldiaren arabera aldatzen da baina konpetizio sasoian murgiltzen garen egunean hamar eta hamabi ordu bitarteko entrenamendua egiten dut, eta horietako zortzi edo bederatzi, gutxienez, urpean. Igeriketa modalitate hau bereziki da gogorra, hiru minutuan urte askoko lana jartzen dugulako jokoan.

Zailtasunak zailtasun, igeriketa sinkronizatua ikasketekin uztartu duzu. Zenbateraino lagundu dizu zure bizitzaren beste adar horrek egunerokoan?

Moda diseinuko ikasketak amaitzeaz ditut, bai. Gurasoek betidanik animatu ninduten kirola egiteaz gain ikastera. Goren mailako kirolak hainbeste xur-

gutzen digu, oso erraza baita garrantzitsuak diren beste hainbat ikasketa baztertzeara. Kirolari hobea izateko ezinbestekoa da gure betiko burbuilatik atera eta kulturaz janztea.

Ezinbestekoa al zaizu igeriketa sinkronizatuak eskatzen dituen perfektzionismoari eta obsesioari muga jartzea?

Bai. Eta entrenatzaileek ere behartzen gaituzte deskonektatzera. Arriskutsua baita obsesioak gu xurgatzea. Handitzen joan naizen heinean ere ikasi dut; orain lortu dut, adibidez, gauetan igeriketa sinkronizatuarekin ez amatea, eta ez da gutxi!

Noizbait pentsatu al duzu dena bertan behera uzteaz?

Noski! Behin baino gehiagotan. Gehienbat Pekingo Olinpiar Jokoetatik kanpo gelditu nintzenean. Zalantzarik gabe hura izan zen nire ibilbideko unerik gogorrena. ■



Gipuzkoa Zutik... makuluei esker

2058. urtean gaude. Gipuzkoak baditu jada bost erraustegi, lau superportu eta hiru metro linea. Herritar batzuek, ordea, ez diote gizarte justuago baten alde borrokatzeari laga nahi, eta Benidormetik bueltan "Gipuzkoa Zutik" kanpaldia antolatzeari ekin diote hamaikagarrenez. Taldeko kide Ezti Argirrek (argazkian, betaurrekoekin) azaldu digu zerozaborrismoaren bandera astintzea geroz eta nekezagoa egiten zaiola, baina prest dagoela mafiari haginka jarraitzeko, hortz postizoez lata ederra ematen dioten arren. "Plazako lorategian letxugak tinko landatzen jarraituko dugu,



Gipuzkoa Zutik-eko kideak, asanblada irekiko dinamizatzailearen aginduak jarraitzen.

bost erraustegietako bat itxi arte", dio. AgureSOS taldeak ez du ekimenarekin bat egin, aurretik letxuga motaren inguruan adostasuna lortu behar delako.

Barreraren beste aldetik, Udalbiltzaiko presidente Merkel Troyanok aditzera

eman du seigarren errauskailu bat irekiko dutela Angulan (euskaraz Angelu), euskal marka nazioartera zabaltzeko. "Herri hori non demontre dagoen jakin bezain pronto abiatuko ditugu obrak", adierazi du Zubietako IKEaren atarian.

Espainiako Konstituzio Auzitegiko katxondoak: "Debekuak ta txorakeriak! Guk geurea!"

68ko arima berreskuratu nahi du Espainiako Konstituzio Auzitegiak. "Debekatuta dago debekatzea" aldarrikatu dute jaun-andere txit ohoragarriek, karrikara irten eta askatasunaren alde poliziari aurre egiten zioten garaian bezala. "Nazionalistek dena debekatu nahi digute-eta!". Hasteko, bertan behera utzi dute zezenketak debekatzen dituen Kataluniako legea, Espainiak kulturari dauzkan eskuduntzak zapaltzen dituelakoan. "Ez gara horretan geldituko; espainiar ohitura jatorren etsai guztiei oldartuko gatzazkiekete", ohartarazi dute. Hurrengo urratsa komisarietan tortura debekatzen duten lege absurdoak ezabatzea izango da. "Bazen garaia gure lan zintzoari aitortza egiteko", adierazi du Amador Borraluze Egurrolak,



"Langileak barrikadetan, zezenak plazetan", zioten 1968ko maiatzean. Edo.

Kulturarekin Konprometitutako Polizien Elkarteko presidenteak.

Ilaran zain daude dagoeneko udako jaietako erasotzaile matxistak.


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



ALTZA PORRU

JAKOBA ERREKONDOREN BIZI BARATZEA

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak lantzen ditugun bitartean komikiak sortuko ditugu, zuzenean!
Gure kulturaren oinarria den Lurra landuz, ingurumena, hizkuntza eta abar jorratuko dira.
Irria eta umorea ere badira baratzean!

Jakoba Errekondoren
"BIZI BARATZEA" liburutik
abiatuta, baratze mundu
askotarako ataria dela
azaldu nahi da liburu berri
honekin. Oraingoan, irudia
eta komikia nagusi.
Zortzi marrazkilariekin
eman eta hartuan:

Antton Olariaga
Joseba Larratxe
Zaldieroa
Unai Iturriaga
Unai Gaztelumendi
Ainara Azpiazu Axi
"mattin" Martiarena
Asisko



HITZALDIA ANTOLATZEKO
eta LIBURUA ESKURATZEKO

19'50€

18€

harpidedunentzat

943 371 545

www.argia.eus/denda
edukia@bizibaratzea.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus

